


Donibane Lohitzune Ziburu

Maiatz.



M A N V A L



IRACURTCAILLE

DEVOTARIEGVILLEAC
LIBVRV HVNEN MANERAZ
A B I S V A.



Liburu hunen maneraz	1
Sarritza (SAGAIO)	2
Donibane-Ziburu-k (Iratzeder)	3
Bateazaleen Otoitzak (Joannes Etxeberri)	4
Donibane Zibururen inguruan (Xanpun)	5
Arrantzaleak eta arrainak (Arezki)	6
Esperantzari ateak zabalik (Pruden)	7
Allande eta hiru «astronomuak» (Piarres Larzabal)	8
Maiatzetik sagan (Xalbardin)	12
Euskararen geroaz (Benat)	14
Euskara ukatzen duen... (Iratzeder)	15
Bertso (zortzi urteko haurrak)	15
Donibane Lohitzungo (Urko eta Heren)	15
Horra eta Zaldia (Voltaire - Xan Igos)	16
Harpeko Saindua (Ainhoa)	18
Zuhaitz magikoa (Mirentxu)	18
Xoria eta harra (Marie eta Benoît)	19
Barbantxo (Jontxu eta Mathieu)	19
Gatua eta txakurra (Milia)	20
Artzaina eta ardia (Argitxu eta Joana)	20
Asmakizunak (Amaia eta Nerea)	20
Amazoniak (Rafa)	21
Pattin eta Patto (Xabi eta Eneko)	21
Pottoka (Jean Michel eta Patxi)	22
Hilargiko gizona (Lucile eta Jon)	22
Afrikako hibai lanjerosena (David)	22
Ganixen aitxorra (Jean Luc Mendizabal)	23
Ortzi eta ikastola (Ibon)	24
Lehoia eta sagua (Lohitzune)	24
Sagua eta gatua (Aitziber eta Eneko)	24
Amets bat (Jakes)	25
Lurra norena da (Seattle - Anje Iturbide)	26
Maider eta Maialen elurretan (Maitetxu eta Elorri)	29
Allande eta hiru «astronomuak» - beretik	30
Arraintzale Anaiak !... (Iratzeder)	32
Donibane (Iratzeder)	33
Halabiz	34

Tala

- Donibane Lohitzune, Ziburu ?
- Ea, zer da hori ? Baaa, bi herri, portu bat, arrantzale batzu itsasuntzi pollitak, ondartza famatuak.
- Eta besterik ez ?
- Bo, ez dakit !
- Eta eskualdunak ahanzten dituzu, ez ?
- Ba ! Hain guti dira...
- Gutti, guti fite erran behar da hori. Ez dituzu ongi ezagutzen eta lan egiten dute. Maila guzietan.
- Ba, dena politika zikina, besterik ez.
- Ja, ja. Eta kultura zer ? Sekulako lana egiten dute, kulturen eta froga bezala baduzu zure eskutan duzun Maiatz berri hau. Ju, ju. Zonbat idazle bildu diren Sagaiorekin, zenbaki hau egiteko, izigarria ! Idazle ezagutu batzu eta beste ainitz oraino haurrak, langileak, gizon eta emazteak, denetarik.
- Ah ! bon !
- Bai, bai egia ! Eta badakizu zerk bultzatu duen Sagaio, Maiatz berezi hau sortzeko ?
- Otsailaren 1tik 10raino antolatzen duen kultur astea. Eta hori denbora gutiz, eh ! Orduan ez erran gehiago Donibane Lohitzune Ziburuko eskualdunak guti direla eta ez dutela deusik egiten. Ainitzez tronpatzen zira.
- Bon, bon ohartzen naiz, orain eta ados naiz zurekin. Adio, ikus arte irakurtzen hasiko naiz orain.



donibane.ziburu-k

«Donibane Ziburu-k erdi erdian zuba...»
(kantu xabarra)

Donibane Ziburu-k erdi erdian zuba...
Hara biak bat egin direla, -hau bozgarriko berria !-,
Gazten baitan zaintzeko : euskaldun bihotz garbia.

Donibane Ziburu-k biek dutela su bera !
Zarezen hori funski begira : ez utz herria hiltzera.
Erdarari nausituz, denek bat atxik euskara.

Donibane Ziburu-k : Larrun eta itsasoa.
Guzien gatik euskaldungoa azkartuz balin badoa,
Gurea da gurea Euskal-Herriko geroa.

6/1/85

IRATZEDER.

Aita Donostia-k Azkainen
bidera arioa.

Donibane Ziburuk erdi er-
di - an zuba a Hara biak bat egin dire-
la, -hau bozgarriko berria !-, gazten baitan zai-
ntzeko euskaldun bi - hotz garbi - a

ioannes etxeberrri

Balea çaleentçat.

O Iaun Tobias gaztea vngui beguiratua,
Guardaritçat bidalduric Archangelu Saindua.
Eta costara arraña erakharraracia,
Haren hilltceco eguiten ciñoela gratia.
Guri ere ekharguçu hurbillera Balea,
Segurquiago armaren landatceco colpea.
Biciaren gatic dugu hirriscatcen bicia,
Arren eguiguçu harengueiditceco gratia.

Balea colpatu eta.

I Auna gueure arte baño guehiago cureaz,
Balea çauritu dugu arpoñaren colpez.
Arren bada eguiguçu (Iaun puchanta) gratia,
Sarri guelditceco arrain Itfaffoco handia.
Gutaric garabic çaurtçu gabe bere indarraz,
Segadetan dabillala buztan edo bulharraz.
Edo chalupa irauli gabe guillaz gañera,
Edo berequin eraman gabe vrtan behera.
Arren beguira gaitçatçu gaitz hauc guztietaric,
Esquerra dieçaçugun itçul lehorreraric.
Irabacia da handi, perilla ere handia,
Beguira dieçaçugu principalqui bicia.

Balea hill ondoco esquerrac.

I Auna, ditutçula esquer, eta laudorioa,
Million eta million baño guehiagoac.
Ceren eguiñ darocuçu liberalqui gratia,
Idequitceco handien arrañari bicia.
Gure indarrac etciren deus hunenen aldean,
çure faorea dugu sentitu combatean.
Ecen çure baithan tturroñ batec etsajac,
Vrruticici deçan nahiz dela hangaja.
Hala guri ere eguin darocuçu dõhaña,
Vençutceco Itfaffoan den sendoen arraña.
Lehorrera dakhar quegu eguiñic sarrasquia,
Bici çela aztaparraz cebillan ihicia.
Hala dugu naturaren miraculluz bazterra,
Ohoratcen (Longoicoa) çuc duçula esquerra.

baleazaleen otoitzak

donibane zibururen In

Goizeko alban ideki ordu itsas alderat begiak
ikus ditazke, zilar distiran, itsasoaren hegiak ;
itzuli ordu hona nun diren eskuen pean mendiak.
Ederragoko xokorik ote du gure mundu handiak.

Doniban'eta Ziburu ditu agertzen lehen argiak
zoin diren leku paregabeak, ederrak bezin garbiak ;
anai-arrebak direla ere erran baititake biak,
Urdaxuriak berexten ditu ta bateratzen zubiak.

Alde batetik eta bertzetik, zonbat untzi ur gainean
horier esker ez ote dira gehienak ari lanean ;
denen ona da itsas aldetik zerbeit agertzen denean
langabeziak ikaratuak gauden gaurko egunean.

Gauaz nahi bada freskura hartuz bere leihoa ideki
arrantzaleak ikus ditazke itsas zabalerat gaki,
bertzeak aldiz berari kendu dioten ona ekarki,
gu lotan gauden ordu goxotan behar baitute hauk jeiki.

Baserriaren edergailua gure xokoak ukan du,
gaur zorigaitzez horiek ere sobera zauzku bakandu ;
etxe berriak egin beharrez zaharrak dituzte kendu
behi ta ardién hazi lekuak gaur hiri bat ematen du.

Gora ditzagun dantzari eta berdin kantari taldeak
Euskal Herriak dauzkan dohain ta aberastasun jabeak ;
kofoin bererat beren ezitia ekarki duten erleak,
gure kultura eta hizkuntza lagun ta salbatzaileak.

Gure bizian ibili behar urrats bortitz eta gudu.
eginbidea zer den herrian denek jakin behar dugu
elgar lagunduz herria altxa izan dezagun helburu.
Beti bi izar izan ditezen Donibane ta Ziburu.

XANPUN.



arrantzaleak eta arrainak

Behin itsasontzi bat bazen itsasoan, iduri zuen bale harratzera joaten zela. Baina baziren bi arrantzale ez zirenak oso lagunak baina biok elkarrekin ziren lan egiteko orduan bat hasi zen mintzatzen :

— «Begira zer arraultze egin duzun.

Goazen kapitaina ikustera esango du neria hobe dela».

Biak joan ziren kapitainaren gana eta hau esan zuten :

— «Zein da hobe arraultze bezala neria edo be-rea ?

— Ez dut astirik, bale bat ikusi dut eta handia».

Gertuago joan ziren eta ez zen, sardina bat zen ; baina barku ttikiak bota zituzten uretara eta balea agertu zen. Barku ttikietan igo ziren harpoiekin. Baina ez ziren hiltzeko harpoiak baizik eta lokartzekoak. Momentu ttiki batean balea pasa zen barku ttiki baten azpitik eta buztanaz bota zuen itsasontzia goraka, baina beste batek harpoiaz tiro egin zuen eta tripan ikutu zuen.

Balea ez zen oraindik lokartu orduan joan zen «Pol-Nor»-era eta hantxe lokartu zen. Itsasontziarekin ahal zen segitu baleak goitira egiten zuelako, orduan itsasontziarekin segitu zuten. Han ur azpian baleak erran zion bere emazteari :

— «Kentzen ahal didazu harpoi hori ?

— Bai, baina nork egin dizu hori ?

— Gizon batek eta gizon hori etortzen da gure gana.

— Ez gaitu bilatuko, baina orain uste dut ogera joango zarela ?

— Bai horixe da, ogera joango naiz».

Ogera joan zenean itsasontzikoek ikusi zuten sirena bat eta bat saltatu zen uretara baina tximista baino fiteago joan zen sirena eta horrek kolpe hartu zuen buztanarekin. Igo zuten mutikoa eta Superman baino fiteago uretara sartu zen berriz eta uhaiekin itsasontzi handia ur azpira joan zen. Ur azpian han pasatu zituzten hamabost urte eta itsasontzikoak sirenak bezala bihurtu ziren. Bat ezkondu zen sirenarekin eta haurrak egin zituzten. Baina portuan beldarra zuten, uste zuten itsasontzia ur-azpira joan zela eta denak ito zirela. Orduan itsasontzi batekin joan ziren hara, momentu batean ikusi zuten kapitaina buztan batekin, harrapatu nahi zuten eta hura harrapatzeko partez bere umea harrapatu zuten eta joan ziren. Baina sirena guziak etorri ziren haien atzetik. Portuan bale batek puskatu zuen etxe bat gizon bat itzulipurdian uretara erori zen. Bale batek salto egin zuen portu gainera, uste zuen itsasontzi bat zela eta dena puskatu zuen eta hango jende guziak sirena bihurtu ziren.

Arezki (10 urte).

*narren othoitz handia,
cen bethi gauça nahia.
c daquiçu secretua,
ztaqui hain faindua.*

Atcematen ezbadute.

I Ongoicoa çuri
Ez tarocuçu aitl
Cerengatic çuc cei
Eta bercec myfter

ezpeeeeeeepze

Bertso paratzen hasi orduko
kasko barrenean dantza,
Hitz eta ideia guziek dute
plazaratzeko esperantza ;
denak pusaka atera nahiz,
ea nork duen gaur xantza.
— ni izanen nauk larrosa eta
hi aldiz ene arantza,
denen artean lora dezagun
negu gorriko MAIATZ-a.

Euskal negua luzea baita
beharko dugu su ta gar,
hotza hezurretan sartua dugu
ez dezagun egin nigar ;
nigar malkoak bustiak dira
horrek berorik ez dakar.
Humore onez dantza dezagun
berotuko dugu elkar,
dantza lotuan ongi tinkatuz
gure odol hotzak gar-gar.

Beti nigarrez ari den bati
nehor ez zaio hurbiltzen
bere penetan bakardadean
ba doa beti murgiltzen ;
nigar malkoek itotzen dute
zotinek kuraia hiltzen.
Bihotz alaia eguzki bat da
jendea aise du biltzen
ezpainez-espain, bihotzez-bihotz
lili loratuz da ibiltzen.

Euskal dramari pena dario
bortitzegi zaigu guda,
batzutan, segur, ilun gerade
arrazoinez, nola duda !
Halere gure euskal negua
onduz, dakiguke muda.
Fruitu onduak haziak ditu
erein ditzagun ordu da.
Negu zaharra erdituko da
ez da urrun gure uda.

Hesi azkarrez inguratutik
dute Ipar Euskal Herria.
Kate astunez estekatuak
besoak eta gerria.
Halere gure ezpaineak dute
esperantzaren irria,
nehork ez deusek ezin du gorde
zabaldu den oskorria ;
hegoako Haizeak biharko dakar
egun eder ta berria.

Ttikiak gara, ez da dudarik
ez dezagun hortaz pena,
udaberria hurbil da eta
hor da gure askapena.
ALBANIAREN KONKISTA ez da
guretzat itxaropena ;
ORREAGAKO GUDUA dugu
betiko oroitzapena,
handien kontra geurea zainduz
asmo baten hastapena.

Ttikitasuna ez da izanen
sekula ttikieria,
ez bada jelos, ez badu nahi
harroputzen huskeria.
Handi mandiei beti darie
berezko ustelkeria ;
jende hantuak putz bat bezala
gero dena kakeria.
Ttiki jatorrak ez du jasaiten
espantuen miseria.

Bertso hauetan bil daitekeen
erranahi eta morala
euskal bihotza zaharra dela
baina gaztea odola.
Bataila latzak galdu ditugu
eta horrek, zer axola ?
Eguneroko borroka hoietan
gure geroa dagola.
MAIATZ-a hor dugu gure neguan
bizi nahia dariola.

1984.abenduaren lehenean
Donibane Lohitzunen
PRUDEN.



Virifitioa, eman diat escarazco verfitan,
Catholico manuala neure asti orduan
Ikhuffiric nola bainaiz, iaia tten escalduna
Gure natioa dela copla maite duena.

r
a
n
t
z
a
r
i
a
t
e
a
k
z
a
b
a
l
i
k
...



allande eta 3

astronomuak

LARZABAL

ALLANDE... gaizo Allande! Orotan ezagutua zen Allande ikazkina. Halako gizon tchar bat, erdi konkorra, zango batetik maingu, ahal bezalako galtzak soinean, bethi athorra mokas eta galtzerdirik gabe.

Asto bat bazuen, beltza, asto harekin karroa, eta karro hartan, ikatza garraiatzen zuen hirirat. Goiz guziz, eguerdi inguru artio, haren boz meharra ez zen ichiltzen karrketan : « Ikatza merke ! Merke ikatza ! »

Haurrek, batzuetan, trufatzen zuten, edo harek bezalako oihua eginez edo urrondik haren astoa manatuz. Jende haundiek ere emaiten ziozkaten arteka kitzika-aldi batzu : « Allande, zure asto gihartu horrek bazter guziak usaintzen ditu. » — Eta Allandek aire berean : « Behazu, anderea, aski duzu ahotik hats hartzea. » — « Aho ba. Allande, zuten crasiatzen hiri-zainek, noiz ikasiko diozu zure astoari bidearen eskuinetik ibiltzen? » — Bainan errefera han zen laster : « Egungoan barka dezozue, jaunak... Bihartik eskolarat egorriko dut. »

Hola zen Allande, deusez, ez nehorrez, acholarik gabe, dena ditcho, jikutria eta bitzikeria, bereziki chorta bat zintzurra beheiti egorri ondoan, orotaz hartua eta maitatua.

Denborahetan, jendeak nahiago baitzuen ikatzarekin baino egur idorrarekin berotu, buru-hauste frango bazabilkan bere ikatza ezin salduz. Etcherat itzultzean, ardurenik, irabazi diruek arrabots guti egiten zioten bere galtza tchar perazatuen sakeletan. Beharrik ez zuen haurrik ! Andre Katicharekin, bi biak bizi ziren ttattola pobre batean.

Ahatik Allanderi ez zitzaion galdetu behar ean non bizi zen. Laster ihardetsiren zantzun : « Jauregi eder batean. »

Eta futcho, ez zen baitezpada gezurrez mintzo. Jauregi bat bazuen, bainan... auzoan. Halako jauregi kankar bat, dena chirez estalia, leihotzat zilo tchar batzu han hemenka, iduri Moisen denborakoa.

Jauregi hartan egoiten ziren hiru anay, hiru muthil gazte. Nor ziren, zer ziren muthil heiek, nehork ez zakiten chuchen herrian. Bèthi hiruak elkarrekin zabiltzan, berdin berdina beltzez jauntziak eta kasik nehorrekin solastatu gabe.

Gaztetasun guzia ikasten iragana zutelako fama zuten, han nonbeit Parisko aldetan. Halako izen bitzi bat erraiten zioten heien jakitate suertiarri : « Astronomia » edo « astonomia » edo... nik ez dakit zer... Dena den, gauaz eta egunaz zeruari beha zagezin halako tresna luze batzuekin.

Allanderi norbeitek salatua zioten muthil hek jakiten zutela aintzinetik zer aro egin behar duen. Bainan gure ikazkinak ez zuen heien trebantzian siheste pikorrik. Eta huna zertako :

Uda goiz batez. ari zen Allande bere buruarekin solasatu
«To, egun kalernatu behar dik. Astoa minbera diat, ileak larro ditik eta beharriak chut ! »

Hainbertzenarekin, horra non ikusten dituen jauregiko hiru anayak bidean heldu. Behingoan heieri solas emaiterat ausartatzen da eta galdetzen diote : « Errazue, jaunak, zer aro egin behar du? » — Hek aldiz : « Zortzi egunez idorte... Ez duzu ikusten zeruaren urdin hori? »... Ba, bainan, aratsaldekotz pesiak ari baitziren ahatik !

Geroztik Allandek, muthil heientzat ez zuen bertze trufarik. Jauregiko « astomamuak » deitzen zituen. Phitsik ez zirela hek... bere astoa baino gutiago zakitela... haren katichima entzutekoa zen jauregitarrez.

Ba eta, nahi baduzue egia jakin, Allandek ahopaldiak ez ziren gezurrezkoak. Segurki zozoak ziren jauregiko hiru muthil hek. Zozoa baino zozoagoak. Hainitz urthez eskolan ibili ondoan, kasik deusere ikasi gabe, azkenean, ofizio bat hartu behar eta, zeruari beha egoitekoa zuten hautatu. Eta huna zertako : Ilhargiak, gau batzuez, urhea bezala dirdirutzen baitu, hiru muthil buru eskas hek amestu zuten, ilhargia urhe meta bat zela dilindan, han nonbeit zeru gainean. Geroztik urhe hura zer moldez beregana zezaketen, ezin pentsatuz ari ziren.

Aita zentzudunagokoa izana zuten. Seme hek hain herabe ikusteak emaiten zioten bihotzminekin, berrikitan hila zen. Huna zer izan ziren haren azken hitzak bere semeeri : « Muthikoak, muthikoak, aski baduzue zeruari beha egonik ! Ez zaituzte horrek aseko. Joka zaitze bederen azienda hazten, bertzenaz erreka gachtoak joko zauzte laster. » — Aholku zuhurrak horiek... Zuhurregiak, muthil bulunba heiek entzuteko.

**

DEVOTIONEZCOA:
çuri itçultceco esquer hambatez guchiago,
Cembat orain trifteria baitugu handiago.

155

Egun batez beraz, ari zen Allande bere andrearentzat erasian. Ez zen arrazoinik gabe. Halabainan, gizagaizoak, josiaren eskasiaz, galtzen sakelak zilo zituen eta sakeleko diru chehe guziak lurrerat eroriak zitzaizkon... eta ez lur garbirat, bainan — hala beharra — astoaren ongarrirat. Han ari zen beraz Allande dirua bil eta Katichari mokoka.

Hainbertzenarekin, huna non ondotik iragaiten zaizkon jauregiko hiru zozoak. Behin ere ez-eta, oraikoan, hiruak gelditzen dira ttanpian, ikazkinaren aldean. Hau bethi sos biltzen. Hek berritz Allanderi beha, harrituak, ahoak zabalik, konkortuak hurbilagotik ikusteko ongarr hartan zer ari zen. Azkenean zozo hetarik batek emaiten dio solas : « Zer egiten duzu hor? » — Allandek aldiz : « Lan urhea egiten, jaunak... urhe biltzeko lana. » — « Bainan, nondik heldu zaizkitzu diru horiek guziak? » — « Astoaren ganik. » — « Astoaren ganik? » — « Bai, jaunak... Zer uste duzue, ene astoa iduri duen bezin ez deusa dela? Ez, ez. Urheak balio ditu ene astoak. Hori ez baginu, ez gintazke biziko... Horrek gaitu-eta hazten! »

Hiru zozoak han gelditu ziren, ez jakin zer pentsa, jeltkarri beha. Azkenean batek erran zion bertzeari : « Bahakien hik, azienda urhe egileak bazirela? » — Bertzea luzaz egon zen, begiak urrun galduak, han nombeit laño-petan. Noizpeit ihardetsi zuen : « Ez, ez nakikan. Bainan, ongi gogoratu-eta, ez nauk harritzen gauza horren hola izaiteaz... Halabainan, ilhargiaren achala urhe balinbaduk, lurrarena ere hala izan zukek. Eta astoa, lurraren achaletik bizi denaz geroz, horren tripan urhearen aurkitzea, ez diat hain bitzi atzemaiten. »

Hirugarren zozoa ere hitzekatu zen : « Orhoitzen zaizte, gure aita zenak nola erran zaukiagun hiltzean, aziendetan aberats-tuko ginela ilhargi lanetan baino hobekiago? Ez zukan hura aire-rat mintzatzan den hetarik. Harek ba bide zakiken zerbeit... Ba ba, chaharrak arrazoina ziken... Aziendetan, aziendetan duk urhea, ez ilhargian ez! »

Huntan hiru zozoak luzaz ichilik egon ziren, begiak lurrari, iduri burua asmuz pisutua. Azkenean bat ernatu zen eta halako irri zoro bat ezpainetan, anayak ondorat deiturik, behari ziborat, pitchi-pitchi, zerbeit salatu zioten. Bainan laster agertu zen zertaz zuten solasa. Astoa nahi zioten Allanderi erosi.

Hasi ziren beraz tratuan : « Allande, asto hori behar daukuzu saldu! » — Ikazkinak aldiz : « Asto hau saldu!! Mila untz urhetan ere doidoia eman nezake! Ez, ez, ez... hau erosiko duen diruduna ez dago sorturik. » — « Emanen 500 untz urhe ». « Ez eta ere... » — « Emanen 700. » — « Zazpi ehun untz urhe?... » Hemen kopeta zimurtzen du Allandek. halako samur aire batekin. Nor zen trufatzen? Hura hetaz edo hek hartaz? Asto ederrenak 50 untz urhe ez balio-eta... zer ari ziren? Irrizko tratua egin nahiz? Hortako, mintzatu zitzaioten motz-motza : « Behazue hortik, jaunak! Ilhargia eskuratuko duzuelarik, etorriko zaizte berritz asto traturat. Beharbada orduan antolatuko gare. »

Bainan zozoek ez zuten irri-miririk : « Mila untz urhetan

salduko zinuera, aipatu baituzu ochtlan, zioten erran ikazkinari, horra mila untz urhe. » Huntan zakuchka bat urhe bota zioten Allanderi eskuetarat, eta, astoa sokatik harturik, urrundu ziren. Allande, harritua, zorotua eta zuritua gelditu zen, hitz bat ere athera gabe.

Huna orai gure hiru zozoak jauregirat itzuliak... Azienda baten erostea ez baita aski, behar baita hura azi, eta gure « asto-mamuek » ez baitzakiten demendren phitsik beharri luze baten mantenuaren gainean, hasi ziren liburuetan miha eta miha, astoak zer janez bizitzen diren jakiteko. Ephe laburrez, zer nahi chehetasun ikasi zuten : Astoek barne sanoa dutela. Oloa, zaia, ogia berdin jaten dituztela bai eta ere : belhar idorra eta pherdia. Azkenean. zozo hetarik batek ,liburu chahar batean, harrigarritzko chehetasun bat atzeman zuen eta anayeri gora gora irakurri zioten. Liburu harek zion aziendak, trefla berotutik jaten badute, hanpatzen direla.


Gauza hori entzutean, hiru zozoak zutitu ziren, lorietan : « Horra, zioten helkarri, horra gure astoak behar duen bazka : Trefla berotua. Halabainan, tripa haundiago eta urhe gehiago dikek barnean. Kanpoz hanpatua den sakelak, barnea jori. »

Baietz eta baietz, ase zuten astoa, aipatu dugun bazkaz, lepho zintzurreraino. Eta futcho, liburu zaharrak erran bezala hanpatzen. Hiru zozoak hari beha zagozin atseginez ithoak : « Zer azienda ona, zioten ! Nola baliatzen duen ahatik jaten duen hura ! Eta laster ! » Eta, astoari, muturra pherekatuz, esku-tik zioten emaiten jaterat, haur bati bezala : « Alo, jan-azu, adichkide maitea ! Jan ausarki !... Oraino bertze ahur bat... Hori azken trefla ahur bat ! Hau bertzeak baino beroago da ! Jan-azu bada ! »

Bainan astoak bazuen askitsu iretsirik. Hauntudurarekin ezin hatsarik hartuz ari zen. Azkenekotz bere burua bota zuen lurrerat. Zozoek pentsatu zuten, dudarik gabe, ongi ase ondoan, astoa orai lo egin nahia zela, eta hartarik urrundu ziren, ahal bezin arrabots gutirekin, haren ez atzarrarazteko.

Gaizo beharri luzea ! Tripa gero eta gehiago hanpatu zitzaion, eta ondarrerat, leheztu eta zapartatu zen.

Berritz itzuli zirelarik aziendaren ganat, hiru gizonak astoa hila atzeman zuten. Bihotz fultsoak ikertu ziozkaten. Berdin zuen ez eginik ere, ezen gorputza jada hoztua zen. Barnea ere mihatu zioten bainan urhe pikorrik aurkitu gabe. Huntan, hiru zozoak arrunt burutik nahasi ziren. Bat hasi zen gora gora marrumaka, eta nigarrak nigarra deitzen baitu, bertze biak ere sail berari lotu ziren. Bihotz-erdiragarrizko intzirinak botatzen zuzten. Batek zion : « Ha, gure asto maite maitea, zer gertatu zauk bada ? » — Bertzeak errefera : « Gaizoa, hik ere tenoria izaki, tenore latz-garria ! » — Hirugarrenak, moda berriko hil-othoitzak atera zituen : « Anayak, zuen erran buru-has chutiturik, anayak, hola-ko gertakari hitsaren ondotik, gauden minuta bat ichilik ! »



(SEGIDA 30 ORRIALDEAN)

maiatzetik sagan

Goizeko bederatziak orain hiru minutu joak dira eta hamarretarako agindua daukaten zitara joan bitartean, otoa udaltzainak eraman ez dezaten behar den lekuan aparkatu ondoren, Donostiako Antiguoa auzotik hiri erdiruntz oinez abiatzen naiz. Kezkatsu nabil, gero egin behar dudanak nahi gabe ere burutik erabat harrapaturik bait nauka. Arazoa gainetik kendu nahi honek, gero eta barnerago itsatsirik dadukatenaren inpresioa sentierazten dit. Ahanzteko egiten ditudan saioek nahi hori ez lortzeaz gain lortu nahi ez dutanarekin topo egiteraino naramate, lokartezinezko gauetan bezalaxe. Zurrumbilo honetan murgildurik nagoela, itsasaldeko brisak desorraztu eta tximak harrotzen dizkit. Eskua goruntz jaso dut, ileak berrorrazteko eta buruan orden piskat jartzeko ote den xuxen ez dakidala. Bat batean kantauriko kontxari begiraturuz Txapelari kantatutako bertso batetako puntua datorkit gogora :

UR GAZIZ BUSTI GAITZAK HI MIKEL
KANTAURI ITSASOAN.

Eta begi zulotan kokaturiko itsas brisaren hezetasuna nabari dut, betazalak busti arte. Badakit jakin, entzuleek behar bada, hori entzutean ez dute ezer berezirik sentitzen, aspaldi hontan poemak eta bertsoak sentimenturik gabe ere idatz bait daitzke. Joxeba Sarrionandiak idatzitakoak irakurtzean, daukat buruan :

EZ DAKIT SENTIMENTUA HITZETARA
ERAMAN DAITEKEN.....

.....
IDAZTEAN
SENTITU DUDANA
IRAKURTZEAN
SENTITU DUZUN JAKIN NAHI NUKE
BAINAN EZ DU AXOLA.

Bai, Didier erahil zutelarik ere bertsoa kantatzeko gogoia izan nuen. Agian egin behar dena garbiegi ukan arren, hutsegitearen lotsak eragindakoa besterik ez da, egiten dugunaz bizi eta konforma beharra bait dugu. Dena eta behar litzatekeena, izena eta izana. Gu baino lehenagokoek ere anitzetan jorratu dituzten lurak ditugu horiek.

EZ ZAITUT EZAGUTZEN
BAINAN AHALEGINAK
BADITU EGINAK ;
BARKA NERE BERTSOAK
SOBERA ARINAK.
HONUNTZ EKARRI GAITU
KONPRENI EZINAK
ESPAINOLAK FRANTZESAK
TA GERRA ZIKINAK,
GIZAHILTZAILEAK HAIEK
TA HAUEK BERDINAK.

Pentsaketan, horrela nindoala nere paretik pasa den emakume baten harriduraz beteriko begiradak nere onera ekarri nau. Bederatziak eta hogeitabost minutu.

Berriz ere, hamarretan egin beharrekoak buruko zati batetan dagoen memoria martxan ipini eta ez dakit zerk bultzaturik, kodigoa aldatzeko indarrak funtzionatzen hasten zaizkit, nere baimenik gabe. Nik, besteei kontrajarriz aurreko burutazioekin jarraitzeko indarrak egiten saiatzen naiz, baina ez zin. Egia esan, naizena estaltzean eta nere ustez ez naizena agertzean datza hein handi batetan geroago egin behar dudanaren exitoa, neronek ere maiz xamar ahanzten dudana arren bata ala bestea.

Aspaldian, erahildakoen omenaldiz kezkatu-rik egoteak, bizidunak sorturiko arazoak konpontzeko ahaleginetan burua martxan jartzea, berez, lan nekoso-za izanik, orain ia ezinezkoa zait.

EZ NAU BELDURTZEN, EZ,
NORBAITETAZ ARITZEAK,
NORBAITEK, NORBERAREN IZENEZ A-
PARTE
MINTZATZEAK BAIKIZ.

Ez dakit zeri buruz idatzi nuen hori eta ez jakin ere orain zertara datorren burura aspaldiko hau, konplikazioak areagotzera ez bada.

Gelditu egiten ditut nere pausoak eta ohartzen naiz agindutako lekutik konturatzeke pasa naizela. Bai, Urumea ibaiaren hotsek, berriz ere nere onera ekarri eta itzulia eginez zitalekurantz abiatzen naiz. Hamarrak bost gutxi. Bankuaren aurrean ikusten dut laguna nere zai.

- Kaixo, ongi haiz ?
- Urduri nagoela ezin uka ; hala ere «ongi» erantzuten diot.
- Prest al dago ?
- Bai noski.

Barnera sartu eta ezin ezkuta zangoen dardara. Gure aintzinean, neska blonda bat daukagu. Irripartsu. Honek ofizioa ezagutzen du, pentsatzen dut nere-rikiko.

- Egun on. Arrospide jauna mesedez ?
- Arrospide jauna ? Aszensorea hartu eta laugarrenean. Noren partetik ? oihukatzen du gu goruntz bagoazela ikusirik. Keinu batez, lasaitzeko adierazten diot pare-parean gizon eta emaztekiak guztiak oiloak bailiran leihatila borobil batzuen gibelean ikusten ditudan bitartean. Buruen gainean, CAJA, EFECTOS, BALORES, CAMBIO, bakoitza bere izenarenpean bizi balitz bezala. Orain, oilarra guri botako digute, esaten dit lagunak, nere-za, bisai-za edo inprimatuta balego bezala.

Aszensorean igo eta laugarrenean gaude. Haruntzkaldean, parean, ate bat ikusten dugu : J.L. ARROSPIDE eta azpian JEFE DE MARKETING idatzirik dago.

Arrantçale particularen otloitçac.

Arrain ttipi çaleentçat otloitça.

Bertara zuzentzen ditugu pausoak eta atea jo orduko ia, bestaldetik, barnetik ahots ozen batek erantzuten du : PASEN.

- Buenos dias.
- Que tal ?

Hau galdetzean, neska blondaren irrifar berberaz ornitzen du bere burua gizon mehe ttattar gorridun honek. Entrepresa honetako irrifarra pentsatzen dut nere baitan, nik neuk ere holakoetarako prestatu-rik daukatena eginez nere aldetik.

Laguna, Arrospide jaunaren eseritzeko gomendioari jaramon eginez, larru marroiez jantzitako eserlekuan jartzen da. Nik ere gauza berbera.

- Que querian Vds ? Etxeko irrifarra abandonatu-rik gabe.
- Mire Vd. somos de ARGIA...
- ARGIA ?
- No conoce ARGIA ?...
- La verdad sea dicha... Irrifar ostiori azkenera-ko desagertzen ari zaio
- Es un semanario escrito integramente en eus-ker-za y veniamos...

XALBARDIN

EUSKARAREN GEROAZ...

Denek badakigu euskara ahuldu dela ainitz arazoinen gatik... Heietarik bat da, bixtan dena, eskola frantsesez zelakotz, eta ardura entzuten ziren burasoek mintzo beren haureri erranez «... ikasten baduk ez zadauk dolutuko !...» Erran nahi baita estudio onak eginez... bizia (edo dirua) ongi irabazten zela eta lan goxoa egiten.

Hainbeste dira euskaldunak, apez, errient, mediku, hautetsi, lege gizon eta holako ofizio «ohorezkuen» peko izanak, ez eskolan ibilia gatik, eta ere sos eskasez nekatuak, nun aterabide bat nahi izan duten xerkatu. Ez bazen langile edo laborari gelditu nahi, behar zen frantses ikastegietarat joan eta estudio horien bidez lan aurkitzen zen. Hörtarakotz, askotan Euskara ukatua izan da, kasik o-hartu gabe... Frantsesaren fagoretan ; frangotan ait'amek huts haundi bat egin eta egiten dute, ez aski pizu eman ez «Euskaldun» izaitari ; ez aski agertuz beren Euskalduntasuna eguneroko bizian, bai ahalgez eta bai ere ezazolkeriaz. Gero ta gehiago ikusten dira gazteak erdaraz mintzo, ez bakarrik eskola gehientsiak frantsesak direlakotz, baina Euskara dakitenak ahalge baitira ez dakitenen aintzinean Euskaraz mintzatzeko. Zertako ba ? Etxekoan faltaz... Beren izaita gaizki soportatzen dutelakotz, seme edo alabaren aintzinean... Zeren hauiek erabaki baitute beren umeak behar dutela heien amentsa bururatu, bere euskalduntasuna galduz bederen.

Nik erraiten dut ... ez ! Ez du balio diruarentzat edo «ohorezko» lan batentzat gure nortasunaren galtzea... Gauden gu !

Ez ditaike izan Euskal herririk EUSKARARik gabe!

Jakin beharda, Euskal herrian bizi nahi balinbada sedurik, lana eta aberastasuna ez direla ardietsiko «diploma» frantses batzuen bidez ; erran nahi dut, on izana gatik ez dela hori aski.

Oraiko egunean ez da Ipar Euskadin «industria» eta lantegi guti baizik ; den horietan behar da eskolari bilakatu, soldata arin baten hunkitzeko ..., ardura Euskararen kontrako nagusi xuhur batzuetarik ; beraz ikusteko da, ez duela balio deus igurikatzea bertzetarik.

Euskaldunek ez balin badugu Ipar Euskadiko «EKONOMIA» gure eskuetan hartzen... ez da Euskara salbatuko.

Ainitz euskaldunek diote Euskara ez dela deustan baliatzen. Egia da, oraiko gizarte huntan ahal eta manamendu gehientsiak, Frantziatik heldu zauzkunaz geroz, Euskarak ez duela biziki pizatzen egun guzitako urratsetan... Baina, guk, zonbeitik frogatu behar dugu Euskara hor dela eta bizi behar duela, ez bakarrik «kultur» mailaz, baina elgarrekin altxatuz Ipar Euskadiko «EKONOMIA» eta orduan gure hizkuntza egun guzitakoa izanen da.

Guri da lan neke horren egitea eta gure «diplomak» balia ditzagun, (ikastolen gisa berean) ekonomia «paralela» baten moldatzeko, zonbeit kopartifa hasiak diren bezala. Guri da Euskalduneri gure indarraren erakustea, Herriaren goraltzatzea eta aberastea ; ez eta beti Frantzia eta nagusiak hobendun ekartzea, zeren sobera errex baita ez delarik deus egin nahi.

Gure buruaren jabe bagira, Euskal herriaren bi-ziarazteko ahal dugu ; baina laster erabaki dezagun :


- nahi dugunez gure geroa eskutan hartu, ala ez?
- nahi dugunez Euskara bizi eta zabal dadien, hura baita aberastasunik haundiena ?

Beñat.

euskarare ngeroazzz

u s k a r e n

g e r o a z



euskara ukatzen duen...

O Iesus-Christ Piareffi eraguiña chaudea ,
Lehen ecin çuquelaric, guero arrañez bethea.
Guri ere eguiguçu liberalqui dohaña ,
Itfaspetic ekhartceco contugabe arraña.
Hambat ordain emateco çuri laudorioric,
Cembat har artetan arrain baitago ehortciric.

Euskara ukatzen duen Euskalduna
ez da gizona.

Sistu-airerik ez badu,
zer da xoria ?
Argi-dirdirik ez badu,
zer, iguzkia ?

Ardi-joarerik ez badu,
zer da etxola ?
Bihotz-pilpirik ez badu,
zer, xaramela ?

Euskara ukatzen duen Euskalduna
ez da gizona.

Aments-lillurik ez badu,
zer da gau-loa ?
Uhain-jauzirik ez badu,
zer, itsasoa ?

Moltsak dirurik ez badu,
zer da irria ?
Iturbururik ez badu,
zer, iturria.

Euskara ukatzen duen Euskalduna
ez da gizona.

7/11/84

IRATZEDER

Bertso honen idaztean
ondoan zuhaitza,
Euskal Herrian ikusi
genuela hontza.
Erreka bazter batean
zegoela haltza.

(8 urteko haurrak)



Donibane Lohitzungo
Ikastola hontan
Ez ditu laguntza asko
Udaletxetikan
Etxe zahar bat erortzen
Dagola benetan
Paretak okertuta
Ustelak teiletan

Kanpoko denboretan
Futboleant jolasten
Heren erori zaigu
Zain batek bultzatzen
Gero alkatea dugu
Beti hitz egiten
Eta beti bezala
Ez du ezer ematen

Gero ibiltzen gara
Beti protestatzen
Ikastola berri bat
Guk dugu eskatzen
Ona izan dadila
Ta estatu onean
Han sartuko gerade
Ta ibiliko ikasten.

Urko ATXOTEGI 9 urte

Heren MURUAGA 9 urte

ikastolakoak

horra eta ZALDIA

(Le chien ou le cheval - Zadig ou la destinée)

ZADIGE'k frogatu egin zuen ezkontzaren lehen hila-betea zela —«Zend» liburuaren arauera— ezti-aroa eta bigarrena mingar-aroa. Ezkont-eguna zuen Azora bere andrea, gaitzegi baitzen harikiko bizitza ; eta zoriona nahi ukan zuen bilatu naturaren ikerkuntzan. Ez da inor zorionago denik, nola Jainkoak gure begi aurren emaniko liburuaz elikatzen den filosofoa baino. Erideiten dituen egiak bere ditu. Hazten eta altxatzen du bere arima. Ekurutasunean bizi da, ez da gizonen beldur eta bere andre biguna ez zaio heldu sudurra ebakitzerat. Burutapen horietaz beterik erretiratu zen baserriko etxe batetara Euphrato hitsaiaren hegian zena. Han ez zihardun, ea zenbat hazbete ur iragaten zen segundu batez zubi baten azpian, eta ea zenbat euri «marra kubo» isurtzenago zen saguaren hilabetearen ardiaren hilabetearen baino. Ez zuen uste egin zezakeenik zirikoa amarauenez, ez eta ere portzelana botila puskez ; bai ordea, ikertu eta aztertu zuen abereen eta landareen berezotasuna, eta ukan zuen zolitasun itzela, zeinek erakutsi baitzion mila ezberaintasun beste gizonen eraberdintasuna zekusatelarik. Behin, batean egurasten zela oihantto baten ondoan, ikusi zuen bere gana heldu, erreginarenean irendu bat zeini ofiziale asko baitzerraion orok lasterka, haia-haia, gizon galduak bezala herstura handitan, zeukaten gauzarik proziatuenaren bila irudi.

— Erys ! gizon gazte ! —esan zion irendu nagusiak— erreginarenean ora ikusi duzua ?»

Zadigek apalki ihardetsi zion —«Txakurremea da eta ez txakurrarra».

— «Arrazoi duzu !» esan zion irendu nagusiak.

— «Untxari ttoki ttikia du —erantsi zuen Zadigek— berrikitan erdi da orkumeez ; herren egiten du beso ezkeraz eta belarriak txit luzeak ditu».

— «Beraz ikusi egin duzu ?» eran zuen irendu nagusiak hats hanturik.

— «Ez ! —erantzun zuen Zadig'ek— ez dut inoiz ikusi orhura, eta ez nekien erreginak zakurreme bat bazuela !»

Hain zuzen, une berean, siratsaren ohizko pitxikeriaz, erregeren zalditegiko zaldirik ederrenak ihes egin zuen zamaltzain eskuetatik Babyloriako ordokietara. Oraldezain haundia zuzendu zen Zadig-en gana eta galdegin zion ea ikusi zuenez erregeren zaldia iragaten. Zadig'ek ihardetsi zion :

— «Zaldietan hobekien lauhazkatzen duen zaldia da. Bost oin goiera du eta apo ttiki samarra ; hiru oin t'erdiko buztana darama. Ahotako apaingarriak, urrezkoak dira, hogeita hiru kilatezkoak hain zuzen. Haren ferrek hamaika lobeneko zilarrak dituzte !».

— «Zein bide hartu du ? Non dea ?» galdegin zion oraldezain haundiak.

— «Ez dut deus ikusi —erantzun zion Zadigek eta ez dut zaldi horren berririk sekula santan ukan !» oraldezain handiak eta irendu nagusiak ez zuten den gutien dudatu, haien arauera Zadigek ebatsi egin zituen erregeren zaldia eta erreginarenean txakurremea. «Desterham» handiaren batzarrera bideratu zuten eta han kondenatua izan zen «knautara» eta Siberi-an iragatera gelditzen zitzaizkion egunak. Epaitzu eman baiko, hona non zaldia eta txakurremea aurkituak ezan zuen. Epaiari behar mingarria ukan zuten erreformatu behar zelako haien epaitza. Baina kondenatu zuten Zadig, lauhun urrezko ontza ordaintzera, esan zuelakotz, ez zuela ikusi, zekusana. Isun hori behar zen lehenik ordaindu. Gero, baimena ukan zeun alde zezan bere burua «Desterham» handiaren kontseiluan : Horrela mintzatu zen.

**Ea beraz ikhas eçac faluatçeco artea,
Ceina baita gaineraço çuhurtçien Andrea.
Hirur gauça çiaduçac, errandudan arteac,
Non ençerratçen baitire Iesus Çhristen legueac.
Hauc direla Guiristinoa beharduc seguratu**

itzulpena: IGOS xan

— «Zuzentasunaren izarrok, jakintzaren leizeok, egiaren mirailok, zeuok duzuen berunaren hazta burainaren gogortasuan, diamantearen dirdira eta kidetasun heuragi (urrearekin !) Haizu delako hemen mintzatzea, zeuon bilkura gurgarrarian, zin egiten dut» hala Orosmada» ez dudala inon, inoiz ikusi erreginaren txakur reme errespetagarria eta are gutiago erregeren zaldi sakratua. Hona xehetuki zer jazo zitzaidan : Oihantto baten alderantz egurasten nintzen non eta han aurkitu bainituen gero irendu gurgarria eta oraldezain handi guztiz ezagutua ; beraz horrean abere baten oinatzak ikusi ditut, eta or'rtiki batenak zirela ohartu naiz errazki. Hareazko goragune batzutan marrazturik, hilduska arin eta luzeek erazagutu didute txakurreme bat zela, errape dilinduna, eta hori dela eta, orkumeez erdi berri zela. Norabide ezberdinerantz, besoan ondoan, eginiko haztek erakutsi didate txakurreme horrek belarri arras luzeak zituela eta nola hanteman baitut, harea gutiago sakondua zela hanka batz, besteaz baino, ulertu egin dut erregina gurgarriaren txakurremeak herren zegiela, hori esaten haizu buzait, jakina !. Erregeen erregeren zaldiaz denaz bezain batean, jakizue ezen oihantto horren bideetan barna ibili egin nintzenez, zaldi baten ferra-hatzak ikusi ditudala. Denak ziren tarte berekoak. Horra egin nuen neure baitan, lauhazkatze eder eta perfektu duen zaldi bat. Zazpi oin zabalera zuen bide hertsu batetan, zuhaitzen hautsa kendua zen pixkabat ezkerrean eta eskuinean. Zaldi horrek nion neuregan, hiru oin t'erdiko buztana du, zeinek eskuin eta ezker (eginiko higiduraz kendu baitu hauts hori). Ikusi dut zuhaitz petan —zeinek eratzen baitzuten bost oineko sehaska bat— adarren hostoak erori berriak zoiela eta hartaz ohartu naiz bost oineko goiera zuela delako zaldiak. Zaldia-aren ahotakoari dagokionez, urrezkoa zela ikusi nuen, hogei eta hiru kilatezkoa preseski, zeren bere ahotako apaingarriak harri bati kontra igurtzi baitzuten. Entsein bat eginik konturatu nintzen, harri hori zela frogarria. Beste hartxin-tzar mueta batetan zaldiaren ferrek utzitako markez, ohar-tu egin nintzen hamaika lobeneko zilargarbiaz ferratua zela.

EPAikari guztiek, Zadig'en bereizgoa sotila eta sakona mi-
retsi zuten. Errege eta erreginaren ganaino iretsi zen berri-
ganbaretan ganbaraunetan, kabinetan ez zen Zadig bezain
mintzatzen. Azti batzuk, sorgintzat erre zezatela esan arren,
erregek agindu zuen itzul ziezaioten urrezko lau ehun ontza
isuna. Hartara kondenatua ezan baitzen. Hauzitegiko idaz-
lea, prokuradoreak, epaikariak haren etxera joan ziren eta
eman zioten lau ehun ontza. Baina hartarik hirurehun eta
larogei ta hemezortzi eduki zuten hauzitegiko gastuentzat
morroiek ere galdegiten zutela gainorduen lansaria. Zadigek
ikusi zuen zein lanjerosa zen jakintsuegi izatea eta hitz e-
man zuen bere baitan ez zuela engoitik beste aldi batetan
ikusiko zuenaz tutik esanen. Baina aldi hura gertatu zen—
Estatuko preso bat itzuri egin zen eta Zadig-en leihopetik
iragan. Galdekatu zuten Zadig, eta onek ez zuen halabaina
deus ihardetsi. Baina frogutua izan zen leihotik so zezuela.
Kondenatua izan zen beraz ordaintzira bostehun ontza eta
eskutu zituen epaikariak beren barkamena gatik, Babilis-
nako ohikundearen arauera. «Halajainkoa ! » ! zion bere bai-
tan — urrikalkizun gabela eiki egurasten garenean erregeren
zaldia eta erreginaren txakurremea iragan diren oihantto
borean barna ! Zein arrikugarria den leihoan egotea ! eta
zein neke, gaitz eta zail den zorionsu izaten bitzitean.

VOLTAIRE



harpeko

Ostirale goizean Harpesainduaren ondoko baserrira joan ginen.

Han ez zen inor ageri.

Orduan fotoak hartu genituen.

Eta handik alde egin genuen.

Bidean baserriko jendea aurkitu genuen.

Gero emazte baten haurrak erakutsi zigun Harpesainduko bidea.

Berehala igo ginen.

Oraintxe bertan hango ipuin bat kontatuko dizuet :
Lehen haurrak hiltzen ziren larruko eritasunak ziztuztelako.

Baina emazte batek bere haurrari ur hori pasatu zion eta sendatu zen.

Beraz ur horrek larruko eritasunak sendatzen ditu.

Behin emazte batek ordaindu arazi zuen ur hori hartzeko.

Beste egun batetan emazte hori bere hankak bustitzera joan zen.

Urak bere asoina ereman zion.

Harpesaindua haserre zen.

Orain ur hori hartzeko ez da ordaindu behar.

Eta jendeek hala gauzak erematen dituzte.

Edurnek Harpesainduaren estatua ikusi zuen, bururik gabe zegoen.

Batzuek esaten dute Harpesainduak ez duela bururik.

Honela bukatzen da istorioa.

Ainhoa (8 1/2 urte)

(Bidarrira ateraldi bat egin ondoren egina izan da
testo hau)

saindua

zuhaitz

Behin mendian, etxe batean, neska eta bere amatxi bizi ziren ; ahuntzak, ardiak eta zaldi bat bazuten. Diru asko ez zuten baina puska bat bai. Behin amatxik hazi majikoa jarri zuen baina berak ez zekien majikoa zenik, eta erein zuen.

Gero, bost ilabete pasatu eta, zuhaitz majiko txiki bat bihurtu zen. Baina negua zen eta zuhaitzak txuri-txuriak ziren ; denek hotza zuten eta herrikoek ere bai ; hainbat hotz zuten, zuhaitz majikoak elurra eguzkiz bihurtu zuen. Denak oso pozik ziren eta neskatxa txikiak eskerrak ematen zizkion. Eta esan zuen :

«Orduan zuhaitz majikoa da ?»

«Bai, baina nere eta nere amatxirena da !»

«Bai.»

Orduan, denak etxera itzuli ziren, eta eguerdia zenez, denek bazkaldu zuten. Arratsaldean, neskak auzoko guziak bere etxera gomiatu zituen eta denak ongi bizi izan ziren.

Mirentxu OIANGUREN, 9 urte.

magikoa

LEHENBICICO

LIBURVAREN, LEHEN
parteá, ceña baita, Doctrina
Christiana, edo Catechima.

*apprehendite disciplinam, nequando irascatur Do-
minus, & pereatis de via iusta. Pfal. 2.*

Bat bederac ikhaz beça, iaincoaren legeua
laquin faltaz har ezteçan, ezquerreco bidea.

Egun batez arbol zilo batean har bat bazen.
Egun eder batez bere zilotik ateratu zen hostoak ja-
tera. Bazen xori bat, harraren arbolaren gainean
pauatu zen. Xoriak ikusi zituen hosto guziak hon-
datuak. Bertze egun baten harra kanpora joan zen.
Momentu baten buruan euria hasi zen eta harra fite
zilora sartu zen. Eta negua etorri zen eta harrak zi-
loan gauza xuri bat egin zuen. Udaberria etorri ze-
nean harra ateratu zen. Pinpirin bilakatu zen, poli-
ta zen ! eta hola bukatu da ipuina.

Marie eta Benoit (7 urte).

xoria eta harra

barbantxo

Egun batez herri ttipi batean Barbantxoren
gurasoak bizi ziren. Barbatxo tiki-ttikia zen. Bere
aita mendira joan zen lan egitera eta Barbantxo be-
ti bere aitarekin joaten zen lanera. Egun batez Bar-
bantxoren ama ritu zen eta Barbantxo etxera etor-
ri zen. Bere aitari zopa ereman behar zion bere ama
eri zelako eta prestatzen zuelarik erori zen zoparen
barnera, gero atera zen zopatik eta oso haserre zen.
Astoa hartu zuen joiteko. Bidean haurrek ikusi
zuten asto bat eta hurbildu ziren eta astoa nardatu
zuten. Barbantxok garrasi egin zuen eta izitu ziren,
Barbantxo ez zuten ikusi ongi gordetua zelako. Mu-
tikoak eskapatu ziren eta Barbantxok janaria era-
man zion. Bukatu zuten eta joan ziren eta Barban-
txo belarrean jolasten zen eta behi batek jan zuen.
Barbantxoren amak behia garbitzen zuenean Bar-
bantxo aditu zuen karrasi egiten eta erran zuen :

« — Non zira, ?

— Behiaren tripan.

— A bon ! Kaka egingo duelarik ateratuko zira.

— Bai ama.»

Eta behiak egin zuen kaka eta Barbantxo ate-
ra zen kakatik.

Jontxu eta Mathieu (7 urte).



GATUA ETA TXAK

Behin, herri batean, gatuak eta txakurra bizi ziren. Elkar asko maite zuten eta pentsatu zuten herrialde beroetara joatea. Hegazkinean, oso pizik ziren; heltzean etxe bat alokatu zuten. Han, itsaso handi bat zegoen eta itsasoaren ondoan, igeritegi handi bat ur garbiarekin. Gatuak eta txakurrak ez zekiten nondik hasi.

«Nondik hasiko gara?»

«Igeritegitik hasiko gara»

Maiota eman eta plast! urera saltatu zuten.

«Zein ona den ura» esaten zuen gatuak. Bainatu eta gero, joan ziren alokatu zuten etxera, eta txakurrak esan zuen:

«Ni lo egitera noa!»

«Siesta on» esan zion gatuak.

Txakurrak lo egiten zuenean, bitartean gatuak itsasora joan zen. Mintzatzen hasi zen:

«Ura zein ona dagoen, domaia da txakurra ez hemen izaita».

Txakurrak esnatu eta gero, galdetu zuen:

«Non dago gatuak? Segur naiz gatuak itsasoan dagoela».

Minutu batzuk eta, gero hoiien egiazko herrira joan ziren.

Milia ARRANBIDE, 9 urte.

ARTZAINA

ETA

A RDIA

Behin batean artzainak ardiak zaintzen zituen eta gezur bat erran zuen: otsoak ardiak jan zituela. Herrira joan zen eta herrikoek makilak eta kanitak hartu zituzten eta joan ziren ikustera eta etzen egia. Herrira joan ziren eta haien makilak eta kanitak utzi zituzten. Egun batez otsoa etorri zen eta artzaina herrira joan zen eta erran zuen:

— «Otsoa etorri da!» eta denek ezetz erraten zuten. Artzainak erran zuen «Bai!» eta azkenean etorri ziren eta otsoak ardiak jan zituen.

Argitxu eta Joana (7 urte).

— Argitzen du, ez da anpula. Berotzen du eta erretzen du. Baina ez da sua. Zer da?

— Mugitzen naiz eta beti nere lekuan egoten naiz. Zer naiz?

— Barazetik hartzen naute, punta kentzen didate, berotzen naute eta jaten naute. Zer naiz?

.....

— Borobila naiz, ferdea naiz, ona naiz jateko. Zer naiz?

Amaia eta Nerea (7 urte).

asmakizunAk

Egun batez urrearen bilatzera joan ziren gizon bat eta bere lagun handiena, txakur bat. Hego-Ameriketako oihan handi batera «AMAZONIARA». Abantxu ez inor handik etxeratu. Egiazki lanjerosa zen, abere salbaiak, sugeak, migala eta abar. Baina gauza txarrena gizona zen : indioak, buruak mozteten dituzten gizon hoiek. Benetan ez zen errexa izango, baina gure gizon horrek dena prestatu zuen. Eskopetak, balak, medikamentuak. Beraz joan ziren.

Hilabete erdi bat pasa ondoren arrantzale-kai batean sartu ziren, AMAZONIAKO besoan. Gure gizon horren problema bakarra zen sobera ona zela eta hango gizonak ikusi zituelarik pena izan zuen eta bere gauza ainitz eman zien. AMAZONIAN sartzean abantxu beldurrez erori zen. Azkenean egiazko bidaia hasi zuen. Oinez ibiltzean suge batek koska egin zion. Biharamun goizean txakurra bil egin zen. Gure heroiak bere bidea segitu zuen.

Bi hilabete pasa eta gizonak ez zuen gehiago bilatzen bere bidea karta erori zelako. Gauaz sukar handi bat izan zuen eta goizean ez zen altxatu. Atzarri zenean Indioen etxola batean atxeman zuen bere burua eta burua moztuko ziotela ulertu zuen zorigaitzez ; orroitu zenean Whiski botoila bat ereman zuela eman zien. Opari horrengatik ez zuten hil eta itsasontzi bat eman zioten, orduan AMAZONIAREN gainean joan zen. Egun horretan itsasontzia itzuli zen eta ur azpian urte pilla bat bildu zuen, hain pozik zen lokartu zela. Atzarri zenean itsasoan zen barku handi baten gainean, orduan ulertu zuen AMAZONI hibaia osoa pasatu zuela bere urte guziarekin.

AMAZONIAK Rafa (10 urte).

Laudorioac Aitaren presunari.

CEVRE obrez nahi çaitut, Iainco Aita, alçhatu
Ceru lurrac çeren tutçun pena gabe moldatu.
Ceren Guignonac ditutçun, ezteuffetic athera;
Gloriaren emateco, cerbitçuen aldera.

10 MANVAL



DOCTRINA
CHRISTIANA
OTHOITZ GVISA.

SARTCEA,

PATTIN eta

Behin batean oihan batean bazen Patto eta Pattin etorri zen eta erran zion Pattok :

— «Egiten dugu lasterketa bat ?

— Baeginen dugu.» eta joan ziren. Patto ez zen fite joaten eta Pattin gelditu zen jateko eta Pattok segitzen zuen. Pattinek ikusi zuen Pattok depasatzen zuela eta fite fite joaten zen ! Gordetu zen landare batean. Bazen ihiztari bat eta xakur bat eta xakurrak Pattin usaindu zuen eta «uau-uau» egin zuen ; ihiztariak «pan-pan» egin zuen eta Pattin joan zen. Patto deia iritsia zen eta gorde zen. Pattin etorri zen eta erran zuen :

— «Ni naiz etorri lehena.

— Ez ni naiz etorri lehena».

Eta Pattin haserre zen.

Xabi eta Eneko (7 urte).

PATTO

POTTOKA

Egun batez pottoka bat erosi genuen, pottoka eder bat zen. Baina oso, oso, oso ttipia zelako «Kukusoa» deitu ginuen. Arratsalde batez pottokan ibili nahi nuen, joan nintzen pottokaren lo-egiteko tikira eta pottoka ez zen hor. Oihu bat egin nuen esanez :

— «Pottoka ebatsi dute !! Aita zizparekin etorri zen eta galdetu zidan zer gertatzen zen eta nik ni-garrez erantzun nion :

— «Pottoka ebatsi dute». Aita haserretu zen, hartu zuen kotxea eta poliziarengana joan zen. Hara arribatuta poliziari esan zion :

— «Ebatsi didate ene pottoka». Poliziaren erantzuna hau izan zen :

— «A ! entseituko gira bilatzea eta zueri emaiten.

— Ongi» esan zuen aitak.

Hogei egun pasata berriz bilatu zuten, haurra pottoka ganean ibili zen, aita kontent zen. Pottoka asko haunditu zen eta «Kukusoa» ez ginuen gehiago deitzen. Deitzen ginuen «Mamut». Gero beste etxe batetara joan zen eta dena berriz hasi zen, lau aldiz berdin pasa zen. Azkenik zoo batetara joan zen, han oso pozik zebilen eta egunero janaria bazuen, jande askok begiratzen zuen, argazki asko hartzen zuten eta hari ezker zookoek diru asko ukaiten zuten.

Jean-Michel (11 urte)

eta Patxi (10 urte).

HILARGIKO GIZONA

Egun batez bazen gizon bat eta gizon horrek udan ez zuen egurrik bildu. Negua etorri zen, eta hotz zuen, ez zuen egurrik sua egiteko. Leihoa ideki zuen eta egur pila bat ikusi zuen. Hartu zuen zakua eta xakurra eta joan zen egurra bila. Argia etorri zen eta gizona haserre zen. Eta erran zuen gizonak : «Zoaz, zoaz.» Biak haserre ziren eta argiak gizona ereman zuen hilargira.

Orain zakua, xakurra, gizonak eta egurrak ikusten ditugu hilargian.

Lucile et Jon (7 1/2 eta 8 urte).



*Auna Khen dietçadatçu gogoetaco
barrac,
Landa beher alhorrari, nola Kharlolâ-
barrac,*

AFRIKAKO

HIBAI

LANJEROSENA

Egun batez bi lagunek ikusi zuten gizon berde ilun bat.

— «E ! Gizon zer arribatu zaitzu hola berdea izateko ???...»

Hola hasi zen :

— «Joan nintzen Afrikako hibai batera, han bazen gorriko bat borrokatzen suge zena suge batekin. Nik atera nuen zizpa eta hamabost tiro eman nion sugeari buruan. Seguraski hila zen. Griko Gorilak ez zidan koska egin nahi bizia salbatu niolako. Segitu nuen kurritzen, orduan nerekin etorri zen. Azkenean hibai bat topatu ginuen, toki ederra zen, sua egin genuen. Jaten ginituen hamburger batzuk. Gauean bazen dragoi bat, ez nintzen konturatu eta goriloa ere ez. Ez zen ttikia, baina haundia. Goizean esnatzean beti hor zen, hartu ninduen eta goriloa ere bai, hibaian sartu gintuen, barruan hatsa hartzen ahal ginuen, bazen sorgin bat bombak eta «bazarra» egiten zuen. Eman ninduen kaiola batean eta hasi nintzen oihuka. Sorginak erran zuen :

— «Berdez bihurtuko zaituz ez bazera isiltzen.»

Ez nintzen isilik egon. Orduan berdez bilakarazi ninduen eta goriloa hil egin zuen. Gauean hartu nuen zerra bat eta pikatu nuen kaiola. Butoi gorri bat zapaldu nuen ta hasipintzen dena hausten. Eskapatu nintzen eta herrira etorri nintzen.

— «Kondatu duzuna egia ote da ?

— Bai. Adio !!»

David (10 urte).

*Eta dietçaquidatçu, çbahu falten cikhiñac,
Guero issur preciatu garacsen dohaiñac.
Hartaracotz yr sainduaz çbahuçcêdur helbarra,
Iongoicoa, ikhus açu arren ene beharra.
Gurutceaz balaber dut armatcen bekhoquia,
Gaitcetic defendaçaçu arren ene bicia.*

GANIXEN ALT XORRA

Egun batez, mutiko bat bazen Ganix izena zuen eta bere aitarekin bizi zen. Ganixek oihanetan ibiltzea maite zuen, eta egun hortan, aitaren baimenarik gabe, etxetik joan zen. Oihanean sartu zen eta ainitz denboraz ibili zen. Behin ere ez zen bere etxetik honbertze urrundu. Ganix unatzen hasi zen. Urrundik etxe ttiki bat agertu zitzaion eta hurbildu zen ; etxe horren aintzinean, agure bat zagoen, harrien gainean jarrita.

Hunek erran zion :

— «Errak Ganix, hator hunat ezagutzen haut».

Ganix harritia gelditu zen, nola ezagutzen ote nau ? zion bere baitan.

— «Bai, jauna ! zer nahi duzu eta nola ezagutzen nauzu ?»

— «Ez kesa Ganix, hau nere lana diat. Badakiat ez hai-zela beti xintxoa bainan bihotz ona duk eta hil aintzin nere altxorra atxikitzeke hautatu haut».

— «Zure altxorra atxikitzeke bainan...»

— «Hago ixilik eta goazen, segi nazak !»

Ganixek agurea segitu zuen. Etxe gibeletik oilotegira joan ziren. Ganixek ez zuen deusik konprenitzen.

— «He ! zer eginen dugu oilotegian, hor ote duzu zure altxorra ?»

— «Hago pixka bat laster jakinen duk !»

Oilotegian sartu ziren eta oiloen artean, xoko xokoan, etxola ttipi batean oilo bat bertzeak bezala...

— «Behazak ongi mutikoa. Hau duk nere altxorra»

— «A!A!ala! hau dela zure altxorra ! oilo bat ! a!a!ala!» zion Ganixek trufaz eta irriz.

— «To ! ez duk irri eginen orain, behazak ongi !»

Ganixek ongi begiratu zuen, agureak erran zion bezala eta zer ikusi zuen ? oiloa arroltze bat egiten ari zela. Egin eta, arroltzea bere eskuetan hartu zuen eta erakutsi zion erranez :

— «Behazak ! behazak berritz eta ongi, astian irri egin duk oiloa irakutsi diadanean bainan orain ikusten duk arroltze hau nolakoa den !» — Urrezko arroltze bat duk mutikoa, oilo horrek urrezko arroltzeak egiten ditik, bat egunean. Hau diat nere altxorra eta hau duk eman nahi diadana !

Ganix berritz ere harritia zegoen, ez zakien gehiago zer erran. Bere aitaren erranez orroitu zen, alegia, oihana hortan sorgin bat zagoela.

— «Milesker, milesker ainitz jauna, zure altxorra ematen bazenit ez zinateke damutuko».

— «Ez kesa mutikoa ! hartzak oiloa eta hōa hire etxerat bainan gibelaldera begiratu gabe, lehen bihurtunera arte». Erran zion agureak.

Agureak hori erran ziolarik, etxola oihalaz estalirik eman zion. Eta gure Ganix, bere etxolarekin, etxerantz abiatu Agureak erran zion bezala ez zuen gibelaldera begiratu. Lehen bihurtunera heldu zelarik, burua biratu zuen eta gibelera so egin zuen, berritz ere harritia gelditu zen. Agurearen etxea ez da gehiago ageri, desagertu da ! Zuhaitzak eta zuhaitzak ez da bertzerik ikusten. Beldurrez, ximista bezain laster bere etxean zen. Gertatu zitzaion guzia aitari kontatu zion.

Berri hori, herrian, laster zabaldu zen eta toki guzietatik jendeak beren etxera hurbildu ziren. Oihukatu zuten, beren erranak frogatzen zuten. Aita semeak oiloa ateratu zuten eta denen aintzinean, ezin sinetsizko arroltzea egin zuen. Hor zirenak ahoa zabalduz agon ziren. Hortik landa, oiloa, norbeitek ebatsi zuen eta kusian aberastu nahian, pentsatuz oiloa arroltze bezala zela, hil egin zuen. Ideki eta, berehala ohartu zen oiloak deusik ez zuela bere sabelean. Hasarre gorrian eman zen eta oiloa Ganixen etxe aintzinean utzi zuen.

Hori egia bazan, sar dadila kalabazan, atera dadila Ziburuko plazan.

ORTZI I+A

IKASTOLA

Egun batez Ortzi ohean zegoen eta bat batean bere amak esnatu zuen. Ortzik jeikitu zenean, esan zion bere amari :

— «Zertako esnatzen nauzu hain azkar... gaur larunbata da ta?»

Bere amak erantzun zion :

— «Tonpatzen zira, gaur ostegunean gira».

Orduan Ortzihortzak garbitu eta gero gosaltzera joan zen. Gosaltzen zuen bitartean esan zion bere amari :

— «Gaur ez dut ikastolara joateko gogorik».

Bere amak erantzun zion :

— «Badakizu ikastolara joan behar duzula».

Orduan Ortzik bere zakua hartu zuen eta ikastolara joan zen. Ikastolara arribatu eta bere gelan sartu zenean denak sartuak ziren. Bere andereñoak esan zion :

— «Sartu zaitetz eta hasi lanean.»

Ortzi sartu zen gelan eta lanean hasi. Baina Ortzik ez zuen batere lanik egiteko gogorik, orduan Ortzik ihes egin zuen kanpora. Gau bat pasatu zen eta etxeratu zenean bere amak esan zion :

— «Nun egon zira?»

Eta Ortzik egia esan zion :

— «Kanpoan izan naiz».

Orduan bere amak erritan eman zion. Ortzi a-faltzen hasi zen, afalduta gero ohera joan zen, orduan amets eder bat egiten hasi zen. Baina laister goiza arribatu zen. Berrito bere amak jeikitu zuen, orduan Ortzik galdetu zion :

— «Zertako jeikitzen nauzu, gaur larunbata da eta?»


Eta bere amak erantzun zion :

— «Baizera ! gaur ostirala da».

Ortzik hortzak garbitu zituen, gero gosaldu zuen eta berrito ikastolara joan zen.

Ibon (10 urte).

BI BARRAI



LEHOIA I+A

SAGUA

Egun batez sagu bat bere etxean zen, oso zaila zen sagua. Nehork ez zuen iñoiz harrapatzen. Orduan lehoiak ez harrapatzeko tranpa bat egin zuen : haragia pozoinarekin. Lehoia hil zen, bere u-meek pena ukan zuten eta sagua pozik zen hil zelako. Pozik bizi zen eta bere aita eta amak pastel bat egin zuten. Sagua pozik zen eta itsas-bela egitera joan zen ziren eta sagu-kumeak irabazi zuen. Goxoki asko ukan zuen. Etxera joan ziren eta festa bat egin zuten bere urte-betetzea zelako, 7 urte egiten zituen.

Lohitzune 7 urte.

SAGUA I+A

GATUA

Behin batez bazen gatu bat eta sagua harrapatu nahi zuen baina sagua oso bizkor ibiltzen zen. Orduan bere zilora joan zen eta hola gatuak sagua ezin zuen harrapatu. Gau batez denak lotan zeuden, orduan sagua polliki joan zen eta hor jan zuen bere gasna eta erran zuen : «zein ona den gasna !» baina saguari tripa haunditu zitzaion, orduan sagua ez zen bizkor ibiltzen eta saguak ez zakien zer egin bere tripa haunditu zitzaiolako. Baina egun batez bere tripa oso fiña zen eta ere gose zen sagua ezer jan gabe. Gizonak berrito gasna ekarri zuen. Sagua, beste gau batez, bere zilotik ateratu zen eta hasi zen gasna bilatzen eta atxeman zuen gizonaren oge-azpian. Eraman zuen etxera, berrito jan eta jan loditu zen sagua.

Aitziber eta Eneko, 7 urte.

amets bat

Aintzin solas labur bat : badakit eta zuek ere bai naski, sekulan gertatzen bada, ez dela hola gertatuko bainan preseski ametsaren indarra eta balioa holako erhokerietan dago. Eta zertako ez ginuke ikusten ahal gure ametsetan eguneroko bizian lortu nahi ginuken gauza ? Amets ederrak direno, itxaropena biziko da.

Begi bat idekitzen dut, beste begia eta azkenean deliberatzen dut atzartzea. Erdi idekia den nere ganbarako leiho batetik sartzen da iduzkia eta berak nau atzarri. Atzarria naiz orain bainan nola debru eginen dut ohetik ateratzeko ? Oraino izigarri akitua naiz edo hobeki erraiteko ez dut batere jeikitze gogorik. Hain luzea izan da gau hura eta hain xoroa nun orain ezin naiteken eman xutik. Ezpeletako bestetan ibili izan gira lagun batzuekin eta biziki berant itzuli gira etxerat, goizeko 7etan uste dut, eta ez bakarrik hori bainan pixka bat «hunkituak» ere, aitortu behar da. Bainan orain jeiki behar dut eta zaila zait ! Azkenean, nere buru barenan lasterka ari ziren pottoka basa horiek pixkanaka pixkanaka hurruntzen dira eta xutik emaita aliatzen naiz.

Etxea ixil ixila da eta jeiki orduko orroitzen naiz nere burrasoak joan direla ahaide batzuen ikusterat eta beraz, egun, bakarrik izanen naizela egun osoan. Bakarrik, ez da oso egia zeren igande goiz guziz bezala gelditu gira eguerditan lagun batzuekin aperitifa bat hartzeko, herriko ostatueta. Jauntzi ondolik jausten naiz gosaltzera. Eta eskaleretan gelditzen naiz pentsaketan : jeiki naizenez geroz iduri zait zerbait bitxia badela airean. Ezin dut erran zer den, bainan holako bitxikeri bat senditzen dut, eta dena erraiteko iduri zait badela egun, zerbait normala ez dena. Eskalerak jausten berriz hasten naiz eta sukaldearen ixiltasunean ohartzen naiz hortik heldu dela, ixiltasunetik !

Barkatu, bainan jakin behar duzue nere etxea delako bide «nazonala» baten ondo ondoan eraikia izan dela eta normalki, igande goiz bat izan arren autoen etengabeko burrunba entzuten dela ; harrabots hori entzutearen entzuteaz ez da gehiago entzuten, gelditzen delarik baizik. Eta hori da. Banoa leiho baterat, begiratzen dut... ez da nihor !

Jakin behar duzue ere, egun, 1985-eko uztailaren 12a dela eta beraz oraino gutiago ulertgarria dela.

Batzuk ezagutzen ditut samurtuak izanen direnak aurten ere, bainan ni ez naiz hortaz kexatuko, turista guziak batbatean joanak badira ez dut nigar eginen !

Gosaria iretsi, azpirina batzu eta bi litro ur edan ondolik, nere mobileta hartzera noa. Zaila da mobiletaz ibiltzen usaia berritz hartzea borts azken urte hauetan autoz ibili izan naizelarik, bainan hala da, dirurik gehiago ez delarik langabeziarengatik, usaia aldatu behar dira. Eta horiekin batera delako biziaren tren. Bo ! Ez du inporta ! Lagunekin ibiltzen ahal deno.

Joan den urtean, bai, lan egiten nuen lantegi tiki batean. Nagusia... badakizue nagusi bat zen, ez beste bat baino hobeagoa ezta ere txarragoa. Eta ezin dut erran gu bien arteko harremanak txarrak zirela, nik nere lana egiten nuen, harek eman baino gehiagoko egin gabe bainan ere ahal bezain ongi eginez. Eta egun batez ; batere arrazoin garbirik eman gabe kanporatu ninduen. Geroxeago ezagun batzuegandik jakin nuen izan zela euskal abertzaleen manifestaldi batean ikusia izan nintzelako eta gertatu zen tokiaren auzapeza onak nagusiari telefonatu ziola nere kanporatzea eskatuz. Eta horra, egun batetik bertzerat langabezian atxeman nintzen : eta gero badakizue beste lan bat atxemaiteko... ! Eta nere kasua ez zen bakarria izan omen. Boo ! Egun batez dena ordaindu beharko dute eta ttipikeri eta ustela horiek ez naute hunkitzen. Hek uste baino goizago izorratuak izanen dira bai !

Bon ! beraz nere mobileta martxan emaiten dut eta plazarat buruz abiatzen naiz. Izigarria da, ez gatu lehertu bat ere bidean. Uialai uditarrak !! Kontent izanen dira oraino, gaixo gu ! Azkenean plazarat heldu naiz eta hor... aldiz beste igande goizen alderantziz, jendez betea da. Taldeka bilduak eta iduriz mirakuilu handi batez denak ari dira euskaraz/sekulan ez nuen pentsatuko euskara bazakitela batzuek ere bai. Mirakuilu bat. Zer demontre gertatzen da hemen ? Gero nere lagunak ikusten ditu, zainetan direla iduri du. Mobileta arbola baten kontra uzten dut eta heietarik hurbiltzen naiz.

— Adio ! Zertan zaitze ?

— Hi ere etorri haiz berriketa ?

— Ze berriketa ? Ni etorri nintzen zuekin aperitifa hartzerat eta uste nuen esplikatu zinautatela zer ostiaz gertatzen den egun. Balezkiten zozbat jende guti ikusi dutan hunat heltzean, harrituko zintzaizkete ! Sasoin hura ere iduriz gaizki hasten duk. Eta ohartu zaitze, denak euskaraz ari dituk ; izigarria duk ezta ? Eta koaferra ere bai gainera !

— Bainan nun bizi haiz hi ? Esprex ari haiz ala mozkorra haiz oraino. Badakik gehiago edan behar huke oraino : azkenean ez haiz orroitzen ?

— Bainan zertaz orroitu behar nitek ? Erradazue zuek balinbadakizue !

— Gaixo muttiko, ez duk orroitzen egun ASKATASUNA-ren eguna dela. Ez haiz ohartu ez dela gehiago xakurrik herri huntan, euskara hizkuntza ofiziala bilakatu dela, muga berri bat ezarri dutela Baionako iparraldean eta hemen bilduak girera gauza guzien antolatzeke ? Alta hori aipatu diagu bada Ezpeletan eta hi hor hintzen ezta ? Eta orain ari haiz deus ez baheki bezala.

— Ah bai bai bai ! Orroitzen nuk orain bai, bainan nik uste nian astokeriak zirela eta irri egiteko bakarrik zinituztela, ez nakien nik serioski ari zinezela ; orain dena konprenitzen diat. Harritu ninduen hainbertze jende guti ikustea, uste nian zerbait gogorra gertatu zela eta... Bainan horrek erran nahi dik ostatuak eta hetsiak izanen direla gaur ?

— Ez, ez idekiak dituk bai !

— Ah bon ! Orduan sartzen gituk zerbaiten edaterat, zeren ni egarri nuk eta gogotik edanen nitek fruitu jus handi bat edo holako zerbait. Eta orain goazen.

Eta orduan, iguzkiak bere berotasun eziaz berotzen zuela eta txorinoak haize hegoaz hasetuak eta askatasunaz hordituak zoriona eta euskal herri berria kantatzen ari zirela, mila bederatzi ehun ta lauetan hogoi ta bosteko uztailaren hamabia egun hortan, ostatuan sartu ginen.....
.....eta atzarri nintzen..

(Gizon gorri baten erantzuna duela, orai, ehun urte)

1854-ean, Washington-eko Gobernook galdegiten du Indioeri sal dezaten beren lurra eta joan ditezen bizitzerat bazter-aldetarat. Idatzi hau egin zuen Sioux-Qualwish leinuaren buruzagiak.

Asko irakurtze egiten ahal dira paper harrigarri huntaz : ixtorio mailean, politika mailean, ekologia mailean eta psikanalizia mailean.

Barnean daukan olerkia senditzen ahal da. Egungotzen ahal da orai Braziiliako Indioek jasaiten dutenarekin bikunduz.

Erran nezake ere fedezko eta esperantzazko aitormen bat dela : Xurien Jainkoa, Larru Gorrien Jainkoa da, menturaz egun batez denak anai izanen gira.

Irakurtze desberdin eta anizkunen hauen ondotik, entzunen ote duguia beharrenaz gabetua den gizon baten solasa ? Solas-aldi hau hemengoa da ? Atzokoa ? Egungoa ? Zer diozu irakurle ?

Washington-en den Manatzale haundiak igorri dauku mezua : nahi duela gure lurra erosi. Manatzale haundiak igortzen dauzkigu ere adixkidantzazko eta borondate onezko hitzak. Zinez pollit da haren partetik, badakigulakotz ez duela, ordainez, gure adixkidantzaren beharrik.

Halarik ere zure eskaintza ikertuko dugu, ezen badakigu ez badugu onartzen saltzea, gizon xuria jiten ahal dela bere harmekin eta gure lurra hartzen ahal duela.

Nola ? Nola erosten edo saltzen ahal da zerua, lurreko beroa ? Gogoeta hori bitxi kausitzen dugu. Airearen freskoa eta uraren dirdira ez dira gureak. Nolaz erosten ahal dituzue ? Lur hunen zatiño bakotxa sakratua da ene popularentzat, pino-orratz dirdiratsu bakotxa, ur-hegi hariñtsu bakotxa, oihan ikuntsuetako lantxurda bakotxa, argalgunie bakotxa eta mamutxa burrunbatsu bakotxa saildutua da ene popularen orroitmenean eta adikuntzan. Arbolari goiti igaiten den izerdiak, berekin dakartzka gizon gorriaren orroitzapenak. Xurien hilek ahanzten dute beren sort-herria, izarretara badoatzilarik.

LURRA GUHAUREN PARTE BAT DA

Gure hilek, hek, ez dute nehoiz ahanzten hain ederra den lur hau, gizon gorrien ama delakotz. Lurrarenak gira : lurra guhauren parte bat da. Lore usain emalleak gure arrebak dira. Oreina, zaldia, arrano haundia... horiek gure anaia dira. Gain harrokatsuak, pentzeko hezeak, zaldi basaren gorputzeko beroa eta gizona, horiek oro familia berekoak dira. Orduan, Washington-en den Manatzale haundiak erraten daukunean gure lurra erosi nahi duela, anixko galdegiten dauku.

Manatzale haundiak erraten dauku xoko bat atxikiko daukula gutartean erasoan bizitzeko : gure aita izanen omen da eta gu haren haurrak. Beraz arren, zure eros galdea ikertuko dugu, baina ez zaiku erretx izanen, guretako sakratua baita !

Turrustetan eta uhaitzetan ibilki den ur distiranta, ez da ura baina gure arbasoen odola. Saltzen badautzugu gure lurra, behar zinukete orroitu sakratua dela eta gure ur garbietako dirdira zomorrotso bakotxa mintzo da enen popularen bizia seinalatu duten gertakari eta ohidurez. Uraren marmara ene aitonaren botza da. Uhaitzak gure eta zuen arrebak dira... eta hementik goiti, behar zinukete eman uhaitzeri arrebakotxari emaiten duzen samurtasun bera.

Gizon gorriak geldia geldia gibelerat egin du gizon xuriaren aintzinean, iduri mendi gaineko lana ihes doalarik goiziguzkiaren aintzinean. Baina gure aiten hautsak sakratuak dira, heien hobiak lur saildua dira guretzat ; eta, hola, mendixkak, zuhaitzak eta gure lurretik ahurtza bakotxa kontsekratua da.

LURRA

NORENA

DA ?

SEATTLE



LATONEC Eçarri çuen libu
çuhurra verfüran cela necatu
Ceren copla partitcen den f
tic.

EZ DUT ADITZEN

Ohartzen gira gizon xuriak ez dituela aditzen gure botzak. Harentzat lur puska batek beste bat balio du, kanpotiarraren pare heldu delakotz, gauaz, lurrari ebastera nahi duena. Lurra ez da haren ama, baina haren etsaia. Eta meneratu dueneko, badoa haratago. Gibelean uzten du bere aitarren hobia, ez du axolarik. Bere haurreri lurra ebasten du eta trufatzen da. Arbasoen hobiak, haurren etxe partea bezala, ahantziak dira. Erabiltzen ditu ama, lurra, anaia eta zerua gauza ebatsgarriak, nekagarriak eta salgarriak bezala, atzara edo berineria saltzen diren bezala.

Haren goseak ihetsiko du mundua, bere gibelean utziz desertu bat.

Ez dakit. Gure bideak zuenatarik arras bertzelakoak dira. Zuen hirietako ikuskuntzak kolpatzen ditu gizon gorriaren begiak. Menturaz ote gizon gorria salbaia delakotz eta ez duelakotz aditzen?

Gizon xuriaren hirietan ez dago xoko geldirik. Nihun ezin ahal dira entzun xuxurlatzen primaderako ostailak edo mamutxa hegalean perekak. Baina menturaz salbai bat baik ez bainiz eta ez baitut aditzen. Azantzak naski beharriak laidostatzen ditu, eta zer da gizon baten bizia ez badu entzuten ahal gaubele baten azantz xoilak? Edo igelen aharak, gauaz, uhil batean. Gizon gorri bat niz eta ez dut aditzen.

Indioak nahiago du haizearen firfira bizia, uhilaren axala ximurtzen duenean eta haizearen usaina eguerdiko euriak garbitua edo pino-morkoixak urrindatua. Aireak, ba! Aireak gizon gorriarentzat baliosa da, baitaki gauza bakotzak parte duela hats berean: abere, zuhaitz eta gizon... denek hats berean parte dute. Gizon xuria ez da ohartzen araz hartzen duen hatsari: aspaldian azken hatsetan den gizon bat bezala, haren usainkinak iduri du bere urrinduran moteldua.

Baina gure lurra saltzen badugu, behar zinukete jakin airea baliosa zaukula eta arima zatitzen duela bere baitan dituen bizi guzien artean. Haizeak, gure aitonari lehen hatsa eman-eta bildu dio ere azkena eta eman behar du biziaren izpiritua gure haurreri.

or baitaite ene flacotic,
go nor duquedan fauore,
t Escaldunen ohore.
açu obra ttipia,
idurien handia.
tçala, noiz ere Arçain,
xaitçaitu bere ordain.
aroeçu plañua,
oz den consolamendua.
tarren arimej egarría,
argu handian eçarría.
tçen daroeçu Eliça,
n saluatceco attiça.
u daroçut presentatzen,
la deçacun, supplicatcen.
tez, hitz eguitera,
çaitte beraz fauoratçera.
n obra estimatua,
quin bera escribatua.

GURE LURRA SALTZEN BADUGU...

Beraz ikertuko dugu gure lurraren saltzeko zure eskaintza. Baina deliberatzen badugu onhartzea, banuke baldintza bat: gizon xuriak erabil ditzan, hementik goiti, lur huntako abereak bere anaia bezala. Salbai bat naiz eta ez dut ezagutzen beste legerik. Ikusi ditut mila basa-idi usteltzen ari pentzean, hor berean gizon xuriak utziak, ibilki zen treineko leihotik tirokatu-eta. Salbai bat naiz eta ez dut ulertzen nolaz alzeiruzko zaldi ketsuak, guk gure hazteko bakarrak hiltzen dugun basa-idiak baino balio gehiago baduen. Zer dira gizonak abereak gabe? Abere guziak suntsitzen balira, gizonak hil litezke arimaren bakartasun haundian, ezen abereri gertatzen dena, gertatzen da ere denbora guttirik barne, gizonari. Gauzak elgarri josiak dira. Behar da erakutsi haurreri zangopean ukanen duten lurra eginga dela gure arbasoen hautsez, beraz errespetagarria dela. Errazue zuen haurreri lurra gure populua bizi ez aberastua dela. Erakutsi auzue zuen haurreri gure beti danik erakutsi duguna: lurra gure ama dela. Lurrari gertatu dena, gertatzen ahal da ere lurreko semeeri. Gizonek tustatzen badute lurra, beren burua dute tustatzen. Hau badakigu: lurra ez da gizonarena, baina gizona lurrarena da.

Hau badakigu: gauzak batziak besten meneko dira, familia bat odol berak batetaraten duen bezala. Gauza guziak elgarri josiak dira: lurrari gertatzen dena, gizonari gertatzen da. Gizonak ez ditu biziko hariak oihaltu, haren piru bat baik ez da. Oihalarik egiten dituen kalteak, bere buruari egiten ditu.

Cein ederric ecin eth
Hartaracotz beha na,
Eta çu ikhusten çaitu
Arren bada errecibi ç
çure fauorearequin d
Ecen handia da çure i
Iphizpicuac hautatu t
Erituei çuc aditcen d
Eta emaçen prouetch
Bañan guztiz Laphuri
Hiltceco çare, hain ç
Presturassunaz altcha
Eta milla descubritç
çuri bada obratçho ha
Eta çu çaitut, defenc
Ecen çure fauoreen vi
Aufartu naiz, ailtcha
Guechiago fauorez de
Ecen berreguintçare

HERIOTZA delaric bethiere tristea, Guztietaco tristeena da campoan hilltcea!

...BESTE NORAPAIT JOANEN GIRA BIZITZERAT

Baina ikertuko dugu zure eskaintza, ene popularenzatzat begiratu duzun bazter-aldetarat joaitako. Joanen gira harat berex eta bakean bizitzeko. Funtsean berdín zauku jakitea nun iraganen dugun gure biziaren ondarra. Gure haurrek ikusi dituzte apalduak beren aita garraituak. Gure gudulariek ahalgea barnean sartua daukate, eta orai, deseginak, egúnak deramazte alferkerian, beren gorputzak kutsatuz jaki azukreztatuez eta edari alkoolezkoez.

Berdín zauku jakitea nun iraganen ditugun gure egúnak. Zonbeitño baizik ez ditugu. Zonbeit oren gehiago, zonbeit negu gehiago eta leinu haundienetako seme bat ere —egun multxo ttipitan xaretan dabiltzanak— ez da geldituko ahenka artzeko, lehenago zuena bezain indartsu eta esperantzaz betea zen popularen hil hobien aintzinean.

Zendako behar dut ene popularen bururatzear nigar egin ? Leinuak gizonez eginak dira, eta kitto ; eta gizonak sortzen dira eta itzaltzen itsasoko uhainak bezala. Gizon xuriarentzat ere berdín da —huni Jainkoa mintzo zaio eta biak eskuz-esku ibilki dira baratzean— baina gauza bera gertatuko zaio. Menturaz anai izanen gira. Zernahi izanik ikusiko dugu.

LURRARI KALTE EGITEA, KREATZAILEAREN MEXPRETXATZEA DA

Baina badakigu gauza bat segurrik —eta gizon xuriak ere asmatuko du menturaz egun batez— GURE JAINKOA ZUENA ERE DA. Egun iduritzen zautzue zuen jabeago bakarra dela, orobat nahi duzuen bezala lurra izan dadín zuen jabeagoa, baina ezina da. Gizonaren Jainkoa da eta haren maitasuna gizon xuri ala gorriarentzat berdina da.

Lur hau, mundu hau harentzat balio haundikoak dira, eta lurrari kalte egitea, kreatzailearen mexpretxatzea da... Xuriak ere itzaliko dira, menturaz, menturaz beste leinuak baino lasterrago. Kutsa zazue oraino zuen ohea eta egun batez itoko zirezte zuen huskinetan. Baina hilen zirezte, lur huntarat ekarri zaituzten Jainkoaren ahalaz erreak, zoinak —arrazoin gordekako batez haizu uzten zaituzte lur hunen eta gizon gorriaren menperatzea. Xede hori guretzat mixteriozkoa da, ezen ez dugu deusik ulertzen ikusiz usinduak eta mendixka zohituak «hari mintzatzaiek» zikinduak.

Nun da oihanttoa ? suntsitua !

Nun da arranoa ? Eta zer erran nahi du zaldi zalueri eta ihiziarri agurra ?

Ikertuko dugu gure lurraren erosteko zure eskaintza. Onhartzen badugu, bakarrik hitz-eman daukuzun bazter aldearen beharrez dugu onhartuko. Hor menturaz gure bizi laburra bururatuko dugu zuk nahi bezala.

Azken gizon gorria itzaliko denean lur huntarik eta haren orroitzapena ez denean izanen pentze gaineko lanoaren itzala baizik, ur-hegi eta oihan hauek atxikiko dituzte oraino ene popularen izpuruak, ene populuak lur hau maite duelakotz, haur sortu berriak bere amaren biotz ttapadak maite dituen bezala. Orduan gure lur hau saltzen badautzuegu, maita zazue.

Maita zazue guk maitatu dugun bezala, arta zazue guk artatu dugun bezala. Atxik azue begien aintzinean lur hunen itxura, hartu daukuzuenean zen bezala ! Zuen indar, izpiritu eta biotz guziaz zaint-azue : zuen haurren gatik maita zazue, guk maitatu dugun bezala ! Jainkoak oro maite gaituen bezala.

Gauza batez segur gira : gure Jainkoa zuen Jainkoa da, mundu hau maitexko du eta gizon xuria ere besten xendra beretarik iraganen da.

Menturaz, menturaz anai izanen gira, ororen buru ! Iku-siko dugu.

Seattle aintzindaria,

Anje ITHURBIDE-k itzulpena eginik.

*Ecen nihar confolatcen da erhaffun miñean,
Harfa faltarcen baçαιο berecquin artean.*

*B v r v X.
Itzafoco viayetan billtzen direnentçat
otboitçac.*

Edocean viayetan billtzen denarentçat.

Maialen eta Maider bi neska dira. Egun batez, Maialen eta Maiderren aita eta amak pentsatu zuten aste bat elurretara joatea, bakantzetan. Maider eta Maialen oso pozik ziren. Aste bat pasatu zen, eta elurretara joan ziren. Heldu zirenean, etxe bat alokatu zuten ; hoiengauzak ongi eman zituzten, gero skiak oinetan eman zituzten eta skiatzera joan ziren. Upagailuak hartu zituzten, eta mendi puntan ailegatzean, Maider erori zen. Ski batek malda jaitzi zuen. Maialenek erran zion :

«Itsoin piska bat, zure skiaren bila banoa eta gero helduko naiz».

«Min asko dut, uste dut hanka hautsia dudala, orduan fite egin».

Maialen joan zen Maiderren skia bilatzera eta anbulantzia deitzera. Ailegatzean, skia bilatu zuen eta xoko batean jarri zuen. Gero fite joan zen eta klinika aurrean gizon bat ikusi zuen, eta erran zion :

«Etorri fite, nere ahizpa erori da eta uste dut hanka hautsi duela».

Gizonak bere zakua hartu zuen eta Maialenekin joan zen korrika. Maialenek Maiderren skia hartu zuen eta upagailua hartu zuen. Mendi gailurrera ailegatu zirenean, gizonak bere zakua ireki zuen eta Maiderri pikura bat egin zion. Etxera joan zirenean, Maider ohera eraman zuten. Maider ez zen pozik ; ski egin nahi zuen eta bere amak erran zion :

«Uste dut bihar ere ohean izan beharko zirela».

«Nik ez dut nahi ohean izan».

Maiderren hanka sendatu zenean, berritz joan ziren ski egitera eta bakantza onak pasatu zituzten.

Maitetxu ETXEBERRIA, 9 urte

Elorri NOBLIA, 9 urte.

GURE HERRIKO MUTIL

Gure Herriko mutil gazte bat erahil zuten Biriatuan
Ta Ziburuko lagun guziek nor demuntre da hobendun
Dantzariak adi zutenean bertze bat ere hil dute
Han beldurturik ta zozoturik odol berria nun ote

Hein betiko maltzurkerian doluminak jo orduko
Herriko jauntto usteldu hoiek pozoina mihitik dario
Segi ba segi bide hortarik herritarrak ase artio
Atzarriko gaituk bai gu ere erantzuna botatzeko

Abertzale gazteen burasoak ez zaitezte ba lotsatu
Gure biharko askatasuna heiek beharko obratu
Atzar gaitezen heien urratsak dezagun denok segitu
Ta gure lurra hain zapaldua denen indarrez libratu

Didier anaia zure bizia ez duzu galdu alferrik
Eta zu Olas lagun lasaia biak hortan elkarturik
Sozialismo faltso aldarean zuek sakrifikatuturik
Zaitzen lekutik egor gaitzazue zuen indarrak bat eginik

Gipuzkoa Bizkaia ta Alaba otonomoak diote
Subero Lapurdi ta Naparra nunbeit ahanzi noiz arte
Bidea luze eginen zaigu Zazpiak bat egin arte
Euskadi bat eta sozialista deneri ongi zaiote

ETXE.

ALLENDE eta 3 astronomuak

Noizpeit bada lekuak ustuzuzten eta joan ziren Allanderenganat, behar ziozkatela errenkurak egin erosi astoaz: « Allande, zure astoa hil zauku. » — « Gaichoa, ez nintzen beldurrik gabe! Ezin laketuz segura? » — « Ba... hil zauku eta zuk gezurra sakatu daukuzu! » — « Zer gezur? » — « Zure astoak urheak balio zituela... Barnea ikertu diogu eta ez diogu deusere atzeman. » — « Nere astoak ez urheak balio? Nahi duzue oraiko morenean ere bortz untz urhe kentzen diozkatela nik hari? » — « Nola ba hori? » — « Nola hori? Aski duzue nik erranaren egitea. Arras gauza errecha izanen da. » — « Zer behar dugu ba egin? » — « Segur ez duzuela gibel eginen? » — « Ezetz, gizona, aginduz geroz. » — « Bonzatozte enekin. »


Allandek hartzen du ikazketako karroa eta badoatzi denak asto hilaren ondorat: « Alo, diote manatzen Allandek bertzeeri, karga-zue asto hori karro huntan. » Eta kargatu ondoan: « Orai, eman zaizte timuinean eta tira-zue karroa. Nik manatuko norat joan. »


Agindua agindu baita, hiru « astronomuek » ez zuten ezetz erraiteko kopetarik izan. Timuinari lotu ziren beraz. Orduan, ikazkina izatu zen karroaren gainerat. Hola, bera gidari eta « astronomuak » mando, itzuli haundi bat egin zuten karririkaz karrika, jende guzia irriz ase baitzen.

Noizpeit Allandek karroa geldi-arazi zuen larru-lantegi baten aintzinean. Eta larrupintzaileen nausia deithurik, asto hilaren larrua, oraino haragitik berechtekoa, bortz untz urhetan saldu zion. Eta segidan « astronomueri » ukan dirua bota zioten, larderiarekin erranez: « Horra nik astoari bortz untz urhe kendu... Har zazue diru hori eta neri ez gehiago aipha ene astoak deus ez zuela balio! »

Zer den ahatik! Zentzugabea balinbada ere jaunchkil, hari bethi nausi edozoin zentzudun, izanik ere ikazkin, galtza zikin.

Pierre LARZABAL,
Eskual-zaleen biltzarreko
lehen garhait-saria izan du lan hunek.





ITSASSOCO

BIAYETACO

OTHOITCEN

ARALDEA

DEDICATIONE

PARTICVLARAERRAN

DEN IAVN.

MIGVEL OIHARART VICARIO

*General Official eta Calonge Theo-
logical berari.*



Scaldunen ozpea da lur guztira hedatcen,
Eta itsasturi ontçat munduac tu laudatcen.
Ecen hain behera eztu Oceanac ondarra,
Nondic athera berunaz ezteçaten legarra,
Eta eztu vrbazterric erreflacac heçatcen,
Norat bidea chuchenquin ez baitute aurkhitzen.
Norte eta Hegoaco hartac dire lekhuco,

IRATZEDER

ARRAINTZALE ANAIK!...

Oi, itsaso zabalaren zabalaren zabal!
Leiorretik maiz nindagon ezin asez hari so.
Maiz nindagon, amets zoroz irakitan odola,
Noiz ote nindoaken itsasoz itsaso.

Haur-haurretik ohakoan ardura naiz lokartu,
Itsas-aizeak fereka, tirain basak kantari.
Haren hatsaren musuan naizelako handitu
Bihotzez beha nago itsaso-amari.

Gixontzean lagunekin zenbat aldiz gan naizen,
Batteliku bat harturik, arrauetan, dena su:
Uhainez uhain nindoan, Donibane ttipitzen
Urrunean ikusiz urgoi ta dohatsu.

Ederra da itsasoa, zeruz bete ta laño,
Dirdiran lo dauzilarik ur-eremu nasaiak.
Ederra da iluntzean ura sutzen dueno
Iduzki urtuaren urrezko ibaiak.

Ederra da itsasoa hasarretzen delarik
Lazgarriko olatoak baitoazko goitika,
Errabian gan nahiak, zelaietan sarturik,
Larrungo mendiari orroaz milika...

*

Bihotzez agur, zueri, Arraintzale anaiak!
Zuen besoak du hezten uhain gaitzen oldarra,
Lemaren erabiltzean baitu zuen bisaik.
Itsaso azkarrari darion ederra.

Itsasoa bezain zabal daukazue bihotza.
Urrungo zerupe hartaz lanbrotuak begiak.
Bazauzte burua gora, dena hezur gorputza,
Tirain oihal urdinez alaiki jauntziak.

Zuen barkuak lerratuz porturatzearekin,
Oihuz ta trumilka jinik baita jendez igeri,
Xutik heldu zaizte xutik, itsaspetik datortzin
Arbaso miresgarri hoitarik iduri.

Ezaun du zuetarik bat izan dela Elkano,
Zuetarik itsas-lapur hoin famatu horiek
Eta itsasoz itsaso lur berrietaraino
Lehenbizi gan diren Euskaldun bero hek;

Zuetarik batzu ere munduaren sutzeko
Jainkoak berak hautetsi gizaseme bakarrak.
Itsas-lurreri nausitu lehengoan pareko,
Ez ote dauzkatzue barnean su-garrak?

Zatozte, iluntzen ari du. Bai, zatozte, anaiak,
Mahain inguruán gauden elgarrekin kantari;
Trago bat su klikaturik, Aiten gogo salbaiak
Sarri pitz dezautzuen lo dagon kar hori.

Edazue baso bana odol, amets eta su.
Edazue kantuz ariz Arbasoen Arima.
Edazue eta... entzun hoin beltz eta nigartsu
Itsasoko aldetik heldu den marruma:

Marrumaz dauzi marrumaz itsaspetik hezurak.
Hoinbertze haize, galerna, etsai eta olato
Garraiturik, hor baitaude itsas gizon azkarrak
Arima zero eta gorputza itsaso.

Marrumaz dauzi marrumaz, hasarrean daukote
Hek hoin lorioski zaindu leior horri zafraka,
Esker gabeko Semeek gaur ezarri baitute
Arrotzen mutil eta... erdararen bazka.

Marrumaz eta oihuka ez ote den gizonik
Bazterrak hoin ilaundurik ikustean ahalke?
Gazte bihotzik diruak eihartua ez denik?
Kaskoinduak zaiztela ba ote ditake?

Eguraldi ederra denean.

IAincoa çuc bitzten tutçu egunoro çuciac,
IGuiconequin guidatceco Ceruetaco arguiac.
Hartaracotz millionbat duçula laudorio,
Ceren eman darotaçun hain eguna propio.

Xuti, begia su-pindar. Xuti, Arraintzaleak,
Zainetan berritz pizturik lehengoan odola.
Arrotz tiraineri gogor, xuti, Euskal-Semeak,
Euskaldun leiorreko harrokak bezala.

*

Bihar uhaineri gora ganen zaizte, anaiak,
Muskorat agur eginik, lanbropetik jauzika.
Ganen, zeruan historik izar begi arraiak,
Gau-amets beroez barnea pilpilka.

Bihar itsaso-zeroak elgar unkiz hoin urdin
Dauzin, urruno uretan, zabal, zabal bihotza,
Euskal-Herrien pizteko, zuen baitan sar dadin
Itsas-haizearekin Aiten hats bortitza.

Bihar iduzki zirrintek sugartuko baitute
Zerura doan Larrune hoin xut eta hoin gora,
Orroit Mendi horri ere itsas-ume bi gazte
Amodioz dauzila urrundik begira.

Betiere azkar dagon Donibane Ziburun
Eskual-ohiduren eta Federearen harroka,
Orroit, herritarrak, orroit gain batetik gau-egun
Bi zerume (1) dauzila Zerurat oihuka.

Beloken, 2-6-42.

DONIBANE

Donibane,

Itsas-ondoko gain ixiletan jarri naiz zuri begira:
Hor zaude beti Larrungo pean zabal dohatsu ta erne,
Zuri behatuz ene begiak laster lanotu baitira.

Uda guziez hunat heldu naiz luze nigarrez aitzeko.
Maite baitzitut nahi zintuzket suhar, nagusi, Euskaldun:
Eta banoki, atsegin gose, arrotz ausarten biltzeko,
Aiten legeak beti geiago zoin aise uzten ditutzun!

Beha! Lurrari uhain zabalak azkar oldartzen zaizkio.
Beha! orroaz tirain zaluak barnean sartu nahiak.
Euskal-Herriak, oso egonik, zure lurrari zor dio.
Zure arkaitzak ez bitza gurit arrotz lazoen lohiak.

Santa Barbarako gainean: 4-7-40.

Bidean sendo doanean.

IOngoicoa guizonaren pena handietaric,
Bidetan da ibiltzea etchetic camporaric.
Milla ditutçula esquer beraz ene mihian,
Ceren aiteña higitcen naicen neure aifian.

Lur bedincatu gabean ehorztean.

IAVN puchanta, nahiduçu Guiriññoac Eliçan,
Ehortz daiten, legue ñabe ez infidelen guisan.
Baldin ordean faltatcen bagare comarketan,
çure icen sacratua laudatcen eztenetan.
Lekhuaren eredura hartcen dugu çohia,
Eta ez damu dugula bedincatu hobia.
Damu haren bada aldera hill denari gloria,
Parabifuan emuçu othoi, Iainco handia.

Textoak jo dituztenak eskertzen
ditugu, bai eta ere Irène BORDA
«gure» marrazkilari gaztea. Maketa
usaiake jendeek moldatu dute.

maiatz.

15, Pontrique karrikan - 64100 Baiona

Tél.: (59) 59.86.33 - Banco de Bilbao - 20007014004



Edité par l'Association MAIATZ
Responsable de la publication : M. BOVARD
Dépôt Légal : 1er trimestre 1985
Imprimerie Artisanale et Impriminute à BAYONNE

Maiatz.

15 PONTRIQUE KARRIKAN 64100
BAIONA - TELEFONA (59) 59 86 33
LEGEZKO EMAITZA 1985.EKO LE-
HEN HIRUR HILABETALDIAN AG
ER ARAZLE *Maiatz.* BATASUNA

BAIONAKO BALIXONEKO ELKARTETXEAN . LEGEZKO ARDURADUN M. BOVARD
INPRIMATZAILE IMPRIMERIE ARTISANALE ETA IMPRIMINUTE DELAKOAK BAIO
NAN. 1985.EKO OTSAILEAN . HIRU HILABETEKARIA. 15 LIBERA EDO 300 PEZETA
URTE OSORAKO HARPIDETZA 90 LIBERA EDO 1600 PTA . BCO BILBAO 20007014004